

Euskal Herria Bildu federazioaren estatutuak

ehbildu

OHARRA

Estatutuen moldaketa hauen arrazoia bikoitza da: alde batetik, Alderdi politikoen erregistroak (Ministeritzak) behartutako aldaketak dira (diziplina-prozedura arautzea, afiliazioaren kautelazko etete automatikoa ezartzea eta zuzendaritza-organoak aukeratzeko prozedura garatzea); eta, bestetik, segurtasun juridikoa indartzeko hobekuntzak, etorkizuneko aldaketa esanguratsuak eta ez-esanguratsuak bereizteko eta prozedura arinagoak ahalbidetzeko. Helburua da, aldi berean, eskakizun teknikoak betetzea eta gure araudiaren egokitzapena eta funtzionamendu juridikoa indartzea.

I. Kapitulua

Izena, jardun-eremua, oinarri ideologikoak, helbidea

1. ARTIKULUA. IZENA

Euskal Herria Bildu alderdien federazio bat, Alternatiba Eraikitzen, Eusko Alkartasuna eta Sortu alderdi politikoez (guztiak Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuak) eta ezein alderdi politikorekin zuzeneko loturarik ez duten pertsonen osatuta dago, eta guztiek onartzen dituzte jarduteko esparru komun bat sortzeko eta hornitzeko landutako estatutu hauek (alderdien kasuan, haien burujabetza politikoa eta antolamenduzkoa galarazi gabe).

Federazioaren izena “Euskal Herria Bildu” da; bere sigla, “EH Bildu”, eta bere identifikazio-ikurra (logotipoa) “ehbildu” testua da, horretarako kutxa baxuan sortutako tipografia berdez osatua (Pantone 2240), hori guztia Administrazioan behar bezala erregistratuta.

Lurralde- edota hauteskunde-erabileretarako, eta betiere Hegoaldeko Idazkaritzaren onespenera, sigla zein logotipoa lurraldeari egokitu ahal izango zaizkio, lurralde edo udalerrri bakoitzaren izenarekin batera, bai eta, hala badagokio, berezko ikur bereizgarriekin ere. Irudikapen grafikoa 1. Eranskinean dago.

Euskal Herria Bilduren sintonia “Euskal Herria Bildu Sintonia” da. Sintonia horren “Leit Motiv nagusia” eta irudikapen musikala 2. Eranskinean jasota daude.

Sigla, identifikazio-ikurra eta sintonia Batzar Nagusiaren erabakiz aldatu ahal izango dira, estatutu hauek aldatu beharrik gabe, eta aldaketa horiek hurrengo Biltzarrean berretsi beharko dira.

2. ARTIKULUA. JARDUN-EREMUA

EH Bildu euskal alderdi nazionala da, eta haren lehentasunezko jardun-eremuak Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoak hartzen ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia. Halaber, eta Ipar Euskal Herriari dagokionez, EH Bilduk lankidetzaharreman estrategikoak izango ditu EH Bairekin, bere baitan zazpi euskal lurralde historikoak bilduko dituen Euskal Estatu bat eraikitzeko ikuspegitik betiere.

Nazioarte mailan, EH Bilduk akordio politikoak eta/edo hauteskunde-akordioak adostu ahal izango ditu Estatu Espainoleko edo Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako beste alderdi politiko edo federazio batzuekin, elkarrekin lan politiko bat egiteko eta/edo Hego Euskal Herriko lau lurraldeena baino maila handiagoko eremuko hauteskunde-deialdietan elkarrekin parte hartzeko.

3. ARTIKULUA. OINARRI IDEOLOGIKOAK

EH Bildu koalizioen forma, alderdi baten egiturak eta mugimendu-izaera dituen subjektu politiko bat da, eta hiru antolakuntza-tradizio horien ezaugarriarik onenak biltzen ditu: koalizioen aniztasun ideologikoa, alderdi-egituren eraginkortasuna eta herri-mugimenduen parte-hartzea eta horizontal-tasuna.

EH Bilduk honela definitzen du bere burua: burujabetzaren aldeko euskal ezkerreko indarra, justizia sozialean oinarritutako Euskal Herri independente bat lortzea xede duena; eta demokrazia eta burujabetza defendatzen duen aliantza estrategiko bat, helburu horiekin bat datozen alderdi politiko eta pertsona guztien parte-hartzera irekita dagoena.

Horretarako, besteak beste, herritarren borondate politikoa osatzen lagundu nahi du demokratikoki EH Bilduk, eta ordezkaritza-erakunde politikoetan parte hartzeko aukera sustatu nahi du hauteskundeetan hautagaitzak aurkeztu eta babestearen bidez.

Eta, hori guztia, honako oinarri ideologiko hauei jarraikiz:

1. Euskal Herriaren autodeterminazioa eta emantzipazioa

Erreferentzia politiko horri dagokionez, gure jardunak honako hauek ditu oinarri:

- Euskal Herria nazioa da – Arrazoi historiko, kultural, linguistiko eta politikoengatik bereizita dagoen gure errealitate nazionala aldarrikatzen dugu. Beste herri eta kultura batzuekiko errespetuan eta ikuskera unibertsalista batean oinarrituta, Euskal Herriak izateko duen eskubidea giza eskubidea da, eta dimentsio guztietan nazioarteko komunitateari egindako ekarpen gisa defendatuko dugu.
- Euskal Herriak askatasun osoz erabaki behar du bere etorkizuna – Euskal Herriak gorabehera asko eta asko bizi izan ditu bere historia politikoan, eta, XXI. mendearen lehen zati honetan, bere etorkizun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala askatasun osoz erabakitzeko duen eskubide legitimoa lortu eta erabili behar du. Askatasun osoz eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea herri batek bizitzeko duen eskubidea da.
- Euskal Herria, denok denontzat eraiki beharreko subjektua – Guretzat, Euskal Herrian bizi garen eta lan egiten dugun pertsona guztion artean eraiki beharreko eremu bat da euskal nazioa, hau da, guztiontzako eremu politiko, kultural eta instituzional bat, inor baztertuko ez duena.
- Euskal Herriak tresna politiko eta ekonomiko guztiak behar ditu – Burujabetza Politikoa eta Ekonomikoa izango da eredu ekonomiko, ekologiko eta sozial baten, aberastasunaren bidezko banaketaren eta jendarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren zerbitzura jardungo duen tresna, eta langileen gehiengo soziala izango du funtsezko erreferentzia, jendartearen ezkerreko eraldaketa aurrerakoia lortzeko.
- Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea eta lurraldetasuna defendatzen dugu, oinarri demokratikoen parametroetan eta errealismo politikoan oinarrituta eta aniztasuna errespetatuta. Egungo egoera abiapuntutzat hartuta, eremu bakoitzean dauden indar-erlazioen ondoriozko erritmo eta abiadura desberdinak errespetatzen eta kontuan hartzen ditugu.

Eremu horietako bakoitzaren autogobernu-edukiak eta subiranotasun-kuotak gehitzen saiatuko gara horrela, baita edozein motatako lotura eta gune instituzional erkide sortzen eta indartzen ere, eta horrek ahalbidetu egin behar du, alde batetik, eremu bakoitzak bere bidea egin ahal izatea erabateko subiranotasuna lortu arte eta bakoitza bere erritmora joanez gainerako euskal lurraldeekin berriz elkartu ahal izatea, eta, beste alde batetik, euskal errepublika independente bat, edo zehazkiago, euskal-nafar estatuen konfederazio independente bat sortuko da, eremu horietako bakoitzaren erabaki demokratiko eta subiranoan oinarritutakoa, alde batera utzi gabe euskal herritarrek, ondorengo faseetan, barneko lurralde-antolaketarako edozein eredu hauta dezaketela, hala nola zazpi lurralde historikoen konfederazioa, lurralde horien federazioa, edo zazpi probintziako estatu bateratua.

- Euskal Herria European – Eliteen, estatuen eta kapitalaren egungo Europar Batasunaren aurrean, herrietan eta pertsonengan oinarritutako Europa demokratiko, sozial eta solidario baten alde gaude, bakea eta nazioarteko elkartasuna defendatuko dituen.

2. Bake prozesua eta gatazka politikorako konponbide demokratikoak

Berre guztiak izango dituen indarkeriarik gabeko egoera baten sendotzea eta gutxieneko demokratikoen berrezarpena izango dira gatazka politikoa gainditzeko ezinbesteko oinarriak, Gernikako Akordioan zein Bakerako Euskal Bidean jasotakoari jarraikiz. Baita bake-esparru bat eta konponbide demokratikoak lortzeko oinarriak ere.

Testuinguru horretan, Aieteko Bake Konferentzian argitara emandako Adierazpena gatazka konpontzeko ibilbide-orri gisa hartzen dugu gure gain.

2018an ETA desagertzearekin batera, euskal jendarteak oinarritzko subjektu eta bermatzailea izateko duen eginkizuna indartu da, euskal herritar guztien –inor baztertu gabe– eskubide indibidual eta kolektibo guztien onarpenean oinarritutako bake eta normalizazio demokratikoko egoera baterako ahaleginean aurrera egiteko eta egoera hori lortzeko.

3. Parte-hartzean oinarritutako zuzeneko demokrazia eta herri-boterea

Defendatzen dugun proposamen politikoak gehiengo sozial handien parte-hartze aktiboan eta kalitatekoan oinarritzen du bere ekintza. Gehiengo horiek beren eredu eta lehentasun propioak eremu politikoan, ekonomikoan, kulturean zein sozialean zehazteko eta ezartzeko gai direnean soilik lortuko dugu herri-burujabetzak zuzendutako Euskal Herri demokratiko bat, eta horrek honako hauek eskatzen ditu:

- Erabaki estrategikoak hartzeko zuzeneko demokrazia sustatu behar da, eta, horretarako, erreferendumak eta herri-kontsultak bultzatu eta egin behar dira.
- Parte-hartze sozialerako politikak landu eta parte-hartzean oinarritutako demokrazian sakondu beharra dago. Horretarako, kontuan hartuko da emakumeek gizonen aldean duten egoera asimetrikoa, eta berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko da.
- Ordezkatuko gaituzten pertsonak herri-borondatearen kudeatzaile errealak izateko eredu bat garatu behar da.

4. Eredu sozioekonomiko zuzena eta ekologikoa

Ekonomia herritarren zerbitzurako tresna izateko alternatiba bideragarriak eta demokratikoak eraiki behar dira. Horretarako, aberastasuna banatzeko bidezko eredu batera eramango gaituzten ekimen eta proiektuak behar ditugu, beste antolamendu ekonomiko justuago eta berdinazale baterantz abiatzeko aldaketa estrukturalagoen aurrerapen gisa.

Herritar guztien ongizatea lortu nahi dugu, eta, horregatik, jendarte-bazterkeriari eta desperekotasun egoerei aurre egitera, oinarritzko jendarte-premiei behar duten erantzuna babestu eta bermatu beharreko eskubidetzat har dadin bultzatzera eta natura babestera bideratuko dugu gure lana.

Argi ikusten dugu eraikuntza nazionalerako ezein prozesuk ezin duela geroratu Euskal Herriko egungo eredu sozioekonomikoaren eraldaketa estruktural baten beharra. Hori dela eta, gehien-goaren eskubideak babestuko dituen eta gehiengo horren premiei erantzungo dien euskal esparru baten aldeko proposamen bat bultzatzen dugu, eta, horretarako, honako hauek proposatzen ditugu:

- Sektore estrategikoen kontrol publiko eta soziala sendotzea. Euskal finantza-sistema publiko bat eratu behar da, bat, ekonomiaren trakzio-sektoreetan presentzia publiko handiagoan sakondu behar da, eta birtualtasuna eman behar zaio Euskal Esparru Sozioekonomikoari.
- Zerga- eta jendarte-politika. Aberastasunaren banaketak diru-sarreraren (fiskalitatea) eta gastuen (jendarte politika) politika aurrerakoi batean oinarrituta egon behar du. Horregatik, fiskalitate progresiboa, zerga iruzurraren aurkako jardun eraginkorra eta zainketei, osasunari, hezkuntzari eta etxebizitzari lotutako zerbitzu publikoen unibertsaltasuna eta kalitatea bermatuko dituen inbertsio sozial bat eskatzen dugu.
- Justizia Sozialaren defentsa. Zerbitzu publikoak indartzea, eskumen berriak txertatuz babes-maila indartzeko, eta zuzkidura ekonomiko egoki bat jarritz politika esanguratsuak garatzeko. Besteak beste, osasuna, etxebizitza, hezkuntza, kultura, justizia eta segurtasuna izateko oinarritzko eskubideak bermatzeko, gure herrian bizi diren pertsona guztiak horien jabe izan daitezen.
- Osasun sistema. Herritar guztientzako kalitateko eta doako osasun-sistema unibertsal baten alde gaude. Emaizta ekonomikoen gainetik lehentasuna osasunaren humanizazioari emango dion osasun sistema bat nahi dugu.
- Zainketa-zerbitzu publikoak. Egungo pribatizazio- eta prekarizazio-prozesuaren aurrean, kalitateko zainketa zerbitzu publiko bat bultzatuko dugu. Izan ere, egungo prozesuak jendarte-dualtasunean sakontzen du eta sistemaren kalitatea okerragotzen du. Hori dela-eta, erosteko ahalmena duten populazio segmentuentzat baino ez daude eskuragarri zainketak. Zainketak politikaren erdian kokatu nahi ditugu.
- Lan Harremanen eta Jendarte Babesaren Euskal Esparrua. Euskal erakunde eta agente ekonomiko eta sozialei enplegu eta jendarte-babeseko politika burujabeak ezartzeko eskumen juridikoko tresnak edukitzea ahalbidetuko dien lan-harremanen eta jendarte-babesaren euskal esparru bat eskatzen dugu. Izan ere, adierazitako politikei esker, sistema publikoaren

pentsioak bermatu ahal izango dira eta lan hitzarmenen estatalizazioa saihestuko da, besteak beste.

- Lan eskubideen defentsa. Enplegua/lana dikotomia gainditzearen aldeko apustua, enplegua duten zein ez duten langileen eskubideen alde jokatzuz, eta lanaren banaketaren defentsa, prekarietatearen aurkako borroka, erretiro-adinaren aurrerapena eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren igoera bultzatuko ditugu. Halaber, lana, familia-bizitza eta bizitza pertsonal eta sozial aktiboarekin bateragarri egiteko neurri eraginkorrak defendatuko ditugu, zuzentasun- eta berdintasun-parametroetatik.
- Elikadura burujabetzaren babesa. Elikadura-burujabetzaren aldeko politika aktiboak, egungo eredu agroindustrialaren ordeztuz: produkzio-prozesu agroekologikoak, baserri-ekonomiak, toki- eta eskualde mailako merkatu eta zerbitzuak eta produkzioaren eta kontsumoaren arteko zuzeneko zirkuituak defendatuko ditugu.
- Ekonomia ekologizatzea. Deskarbonizazioaren eta justizia ekologikoaren aldeko apustua. Energiaren aurrezpena eta iturri berriztagarri ekologikoen erabilera lehenetsi behar dira, energia-sistema publiko batean oinarrituta. Zentral termiko eta nuklearrak eraitsi eta ziklo konbinatuko zentralen eraikuntza eragotzi behar da, eta gas-sistema estraktibistak eta fracking-a bertan behera utzi behar dira, besteak beste. Energia-eredu berri baterantz aurrera egiteko, ez da nahikoa energia berriztagarrien produkzioa areagotzea. Horrez gain, funtsezkoa da kontsumoa murriztea eta energia-sektorea etekin pribatutik urruntzea.
- Ekologia. Planetaren mugei egokitutako jardueraren defentsa: Egungo Euskal eta mundu mailako metabolismo sozial eta ekonomikoak planetaren mugekin talka egin du. Iraunkortasuna ezinezko egiten duen gainkarga ekologiko egoeran gaude, ipar-hego, aberastasun, belaunaldi arteko eta genero arrakala nabarmenarekin. Justizia ekologikoak desoreka hauek zuzendu behar ditu. Baliabideen harrapakeriari amaiera jarritz, urritzen joango diren baliabide material eta energetikoak modu iraunkorrean erabiltzeak, eraldaketa sakonak egitera behartzen gaitu, larrialdi ekologikoari aurre egiteko gure ehun produktiboan, garraioan, lurralde plangintzan, baliabide naturalen eta zaborraren kudeaketan eta abarrean eraldaketa sakona eman behar delarik, klima larrialdiari aurre egiteko herritarren kontrolpean egongo den karbono inpaktu baxuko energia sistema berriztagarri bat garatuz. EH Bilduk bere izaera ekologista jendartearen ingurumen eskubide guztien defentsa irmoaren bitartez jorratuko du.
- Ekonomia sozial eta solidarioaren babesa. Parte-hartze aktiboan, elkartasunean, ekitatean, inklusioan eta kultura-aniztasunean oinarrituta egongo den eta pertsona guztien eskubideen indarra bultzatzea helburu bakar izango duen eredu baterantz egin behar da aurrera.
- Diru publikoaren kudeaketa gardena eta optimizatua. Erakundearen kontrola bermatzeko eta diru publikoaren xahuketa eragozteko, egungo erakunde publikoak sinplifikatzea, bikoiztasuna saihestea eta gardentasuna bermatzea proposatzen dugu.
- Produkzio-eredua. Euskal produkzio-sarean inbertitzea garapen jasangarriko parametroetatik abiatuta. Kalitateko enplegua eta aberastasuna sortzeko eta datozen belaunaldiei etorkizun duina bermatzeko, zera proposatzen dugu, ondasun eta zerbitzuen produkzioan eta

euskal produkzio-sarearen garapen eta eraldaketan inbertitzea eta Euskal Herriko lurraldeen arteko sinergiak bultzatzea (sektore publikoa apustu horren ardatz bihurtuta).

5. Euskalduntzea

Euskara euskal herritarren hizkuntza nazionala da, eta, beraz, haien identitatearen osagai nagusietako bat. Euskara gure herrialdeko kulturaren funtsezko alderdi bat, kultura unibertsalari egindako ekarpen bat eta jendarte- kohesiorako eta jendarteratzeko tresna bat da. Hori dela eta, gure ustez funtsezkoa da euskara normalizatzeko estrategia komun bat landu eta sendotzea, pertsona eleaniztunez osatuta egongo den eta XXI. mendeko euskal jendartearen kultura-aniztasuna errespetatuko duen Euskal Herri euskaldun bat lortzeko. Bide horretan, gure ustez ezinbestekoa da euskararen ofizialtasuna zazpi lurraldeetan lortzea. Kasu horretan, gaztelania koofiziala izango litzateke Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, eta frantsesa Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan.

6. Feminismoa

Patriarkatuaren aurkako borroka funtsezko elementua da EH Bildurentzat. Izan ere, zapalkuntza-sistematik zaharrena da, eta munduko herritarren erdiak gutxietsi eta haien ahalduntzea eragozten du. Sistema patriarkal horrek bizirik dirau gure jendartean, eta gainerako menderatze motekin lotzen eta sendotzen da. Hortaz, emakumeek beren erabateko garapenerako beharrezkoak dituzten baldintzak bermatu eta patriarkatua gainditu beharko dugu jendarte benetan bidezko, zuzen eta demokratiko bat lortzeko bidean aurrera egiteko. Horrek eskatzen du ikuspegi feminista EH Bilduren politika guztietan txertatuta egotea, politika feminista zeharkako ardatz moduan ulertuta.

7. Hezkuntza

Euskal herritar guztiek dute kalitateko hezkuntza bat eta beren nahi eta gaitasunen arabera etengabeko prestakuntza bat jasotzeko eskubidea. Horretarako, hezkuntza-eredu propio bat defendatu behar dugu. Eredu horrek, alde batetik, euskal curriculumaz izango du ardatz, eta, bestetik, 0 urtetik 18ra bitarteko hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitate-sistema bilduko dituen eredu publiko, herrikoi, paritario eta parte-hartzean oinarritutako bat. Hezkuntza-sistema publiko baten aldeko apustua egiten dugunean, botere publikoek jendarte osoari dagozkion hezkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharra dutela hartzen dugu kontuan. Euskal hezkuntza publikoa herri-ikuspegi publikoan kokatzen dugu. Euskal sistema publikoa, gure ikuspuntutik, botere publikoak eta hezkuntza-komunitateak diseinatzen, antolatzen, planifikatzen, kudeatzen eta garatzen dutena da.

8. Gazteria

Gazteriak aldaketa politiko eta sozialaren protagonista eta eragile izan behar du, Euskal Herriaren oraina eta etorkizuna den heinean. Ildo horretan, konpromisoa hartzen dugu euskal gazteek gaur egun eremu guztietan bizi duten salbuespen-egoerari aurre egin eta irtenbidea emango dioten neurriak bultzatzeko eta gazteen antolaketa eta ahalduntzea sustatzeko, gazteek izan behar baitute, eta gazteek baino ez, hain beharrezkoak diren aldaketen protagonistak.

9. Internazionalismoa

Onartzen dugu Euskal Herriaren etorkizuna mundu osoko herri-sektoreen etorkizunari lotuta dagoela, eta internazionalistak gara. Horrek esan nahi du konpromisoa hartzen dugula ekintza puntualak eta/ edo testimonialak egin ordez nazioarteko elkartasun-politika eraginkorrak egiteko, eta lan egingo dugula bidezko mundu solidario bat eraiki nahi duten indar politiko, sozial eta sindikal guztiekin Europan zein mundu osoan aliantza eraginkorrak egituratzeko.

10. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka

“Herritartasun unibertsala” kontzeptu inklusiboaren defentsa aktiboa egin nahi dugu. Kontzeptu horren arabera, pertsonak eskubideen eta erantzukizunen subjektuak dira gizaki diren neurrian. Hori dela eta, pertsona ezin zaie ezein eskubide kendu beren jatorri, arraza, sexu, etnia edo nazionalitateagatik, eta denok gara erantzule pertsona guztiek dituzten eskubide guztien erabilera bermatzeko garaian.

11. LGTBI

Jabetzen gara dugu patriarkatuak, sexua-generoa sistemaren eta arau heterosexualaren bitartez, emakumeak eta disidente sexu-generikoak menderatu eta diskriminatzen dituela. Bi sexuetako batekin, bakoitzari esleitzen zaizkion rolekin edo arautzat jotzen den sexu-portaerarekin bat ez datozenek bazterkeria eta zigorra pairatzen dute. Jatorri bera duten diskriminazio-adierazpide desberdinak dira, horrenbestez hurbilketa desberdinak behar dituztenak, azterketa komun batean eta ikuspegi intersektional batean oinarrituta. LGTBI pertsona eta kolektiboek pairatzen duten eskubide-uraketaren arrazoiei aurre egiteko eta askotariko jendarte aske bat eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu.

12. Kirola eta kultura

Jendartearekin batera gogoeta-gune kritikoak sortu behar direla uste dugu, euskal herri baten eraikuntzaren alde borrokatzeko espainolaz eta frantsesaz bestelakoa den eredu baten barruan. Kultura da kritika horretan sartzeko atea, eta kirola, berriz, eredu horren gauzatze partziala, baina nazioartean oso oihartzun handia duena. Autokritikoak izaten jarraitu behar dugu, aurrera egin eta kapitalismoaren gehiegizko esplotaziotik bizirik atera nahi badugu.

13. Laikotasuna

Laikotasun-printzipioa bultzatuko dugu eremu guztietan. Hala, betiere pertsona guztien kultu eta kontzientzia askatasunaren errespetutik, mota guztietako erlijio-intolerantziei egingo diegu aurre, baita erlijio-kredo jakin bat inposatzeko eta erlijioa eremu pribatutik eremu publikora eramateko ahalegin guztiei ere.

14. Memoria integral eta demokratikoa

Egungo erregimenaren eskusio eta inpunitate-irizpideetan oinarritutako memoria partzial eta alderdikoiaren ereduaren aurrean, memoria demokratiko eta inklusiboa defendatzen dugu, egia, justizia eta erreparazioa oinarri dituen zutabeetan finkatutakoa, iraganeko gatazkak errepikatuko ez direla bermatuko duena.

4. ARTIKULUA. HELBIDE SOZIALA, WEBGUNEA ETA HELBIDE ELEKTRONIKOA

Helbide soziala honako hau da: Kale Berria 26-27, 1. 31001 Iruñea (Nafarroa Garaia).

Webgunearen helbidea www.ehbildu.eus da eta helbide elektronikoa, berriz, ehbildu@ehbildu.eus.

Helbide soziala, webgunea eta helbide elektronikoa Batzar Nagusiak erabakita aldatu ahal izango dira, Estatutu hauek aldatu behar izan gabe, baina Alderdi Politikoen Erregistroan jakinaraziko da, eta aldaketak hurrengo Biltzarrean berretsi beharko dira.

II. Kapitula.

Bilkideak. Eskubideak eta betebeharrak

5. ARTIKULUA. AFILIAZIOA

Jarduteko ahalmena mugatuta edo murriztuta ez duten pertsona fisiko adindunak afiliatu ahal izango dira EH Bildun, atzerritarrak (indarrean dagoen araudiak ahalbidetzen duenean) eta atzerrian bizi diren euskal herritarrak (diaspora) barne, EH Bildu osatzen duten alderdietako afiliatuak zein afiliatuak ez direnak.

Erakundean sartzen den unetik beretik, bilkide oro Estatutu hauen 8. eta 9. artikuluetan adierazitako eskubide eta betebeharrari lotuta geratuko da.

Bilkideen artean, EH Bilduk militantzia mota eta militantzia-intentsitate desberdinak onartu eta ahalbidetuko ditu, parte-hartze militante puntuala eta/edo aldizkakoa barne, baina lehentasuna emango dio ekarpen militante jarraitu eta egonkorrari, ezinbesteko baldintza baita erakundeak behar bezala funtzionatzeko.

EH Bilduk bere kideen afiliazioa jasota utziko du dagokion Bilkideen Erregistro Liburuan. Liburu hori antolakuntzako arduradun nazionalak kontrolatuko du, hiru hilean behin eguneratuko da eta datu pertsonalak babesteko legeetan xedatutakoaren arabera arautuko da. Tokiko Batzarretan, Eskualde Batzarretan, Herrialde Batzarretan, Batzar Nagusietan, erreferendumetan eta kontsultetan balizko parte-hartzaileen errolda osatzeko, horiek egin aurreko hileko azken eguneko afiliazio-datua hartuko da kontuan. Kongresuaren kasuan, deialdia egiten den unean sei hilabeteko antzinatasuna duten bilkide guztiek osatuko dute balizko parte-hartzaileen errolda.

Bestalde, EH Bilduk ekarpenak egiteko eta parte hartzeko esparru irekiak eskainiko ditu afiliatuta ez dauden, baina EH Bilduren proiektua begiko duten eta proiektu horretan parte hartu nahi duten pertsona guztientzat, eta pertsona horiei aukera emango die eztabaida nagusietan eta are erabaki jakin batzuetan parte hartzeko, hartarako Konferentzia Politikoetarako zein erreferendum jakin batzuetarako 'ad hoc' inskribatu edo akreditatzeko aukera emanez.

Bai bilkideek, bai aipatu hurbileko pertsonak edo jarraitzaileek beren datu pertsonalak babesteko eskubidea izango dute uneoro, indarrean dagoen legedian aurreikusita dagoen moduan.

6. ARTIKULUA. AFILIAZIO PROZEDURA

a. Eskaera

Afiliatzeko eskaria idatziz egingo da, Hegoaldeko Idazkaritzak onartutako formularioa betez, eta antolakuntzako arduradun nazionalari bidali beharko zaio.

Bi modutara egin daiteke:

- i. Telematikoki. Kasu horretan, eskatzaileak zer tokiko egituratan adskribatu nahi duen adierazi beharko du. Atzerrian bizi diren euskal herritarrak tokiko egitura batean edo diasporaren erakundean adskribatu ahal izango dira.
- ii. Fisikoki, adskribatu nahi duen eta, azken batean, jarduera militantea garatuko duen tokiko egituran.

b. Eskaeraren onarpena eta ebazpena

Behin afiliatzeko eskaera jasota, Hegoaldeko Idazkaritzak hirurogei egun balioduneko epean ebatzi beharko du, eskatzailea adskribatu den erakundearekin kontrastatu ondoren, eta isiltasuna negatibotzat hartuko da.

Eskaera egiteko bi moduetan, epe hori Hegoaldeko Idazkaritzak eskaera jasotzen duen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, eta Idazkaritzak berak jakinaraziko dio eskatzaileari.

c. Eskaerari buruzko ebazpenaren inpugnazioa

Afiliatzeko eskaera aintzat hartzen ez denean, errekurtsua aurkeztu ahal izango da Hegoaldeko Mahai Politikoaren aurrean Hegoaldeko Idazkaritzaren ebazpena jakinarazten denetik bost egun balioduneko epean, edo, bestela, hirurogeita bost egun balioduneko epean, Hegoaldeko Idazkaritzak afiliatzeko eskaera jaso zuenetik.

Hegoaldeko Mahai Politikoak ebazpena eman eta interesdunari jakinarazi beharko dio, errekurtsua jaso eta gehienez ere hirurogei egun balioduneko epean. Isiltasuna ezezkotzat joko da.

Hegoaldeko Mahai Politikoaren ebazpena ezin izango da errekurritu.

7. ARTIKULUA. KUOTA

a. Zenbatekoa. EH Bildun afiliatzeak Hegoaldeko Idazkaritzak finkatutako kuota mota desberdinak ordaintzeko obligazioa dakar.

b. Afiliazio bikoitzeko kuota. Kuota honek afiliazio bikoitzeko egoerei erreparatuko die, hau da, Federazioa osatzen duten alderdietako batean afiliatuta dauden bilkideen egoerei. Bilkide horiek %50eko hobaria izango dute kuotan, eta alderdi bakoitzak baloratu ahal izango du alderdiari ordaintzen dioten kuotan hobari bat ezartzeko aukera, EH Bildun afiliatzeko pizgarri gisa.

c. Kuota murriztua. Kuota hori eskatzen duten afiliatuen artean gerta daitezkeen egoera soziolaboral desberdinei erreparatuko die.

8. ARTIKULUA. BILKIDEEN ESKUBIDEAK

- a. EH Bilduren jardueretan eta gobernu- eta ordezkaritza-organoetan parte hartzeko eskubidea, ordezkari edo delegatu gisa aukeratuak izan diren organoetan ere, eta botoa emateko eskubidea, Estatutu hauetan xedatutakoari jarraikiz.
- b. Barne ordezkaritzako karguak edo hauteskunde zerrendak aukeratzeko eta haietarako aukeratu izateko eskubidea, baita Estatutu hauei jarraikiz ordezkaritza bidezko parte-hartzea behar duten EH Bilduko organo eta ekitaldietan ordezkari izateko eskubidea ere.
- c. Zuzendaritza- eta administrazio-organoen osaerari, zuzendaritza-organoek hartutako erabakiei, egindako jardueri eta egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- d. Berme Batzordearen aurrean alderdien Federazioko organoen akordio eta erabakiak aurkaratzeko eskubidea, Legearen edo Estatutuen aurkakoak direla uste dutenean.
- e. Ekimenen aurkezpenaren, dedikazio pertsonalaren eta ekarpen ekonomikoen bidez EH Bilduren helburuen betetzea bultzatzeko eskubidea.
- f. Federazioaren barruan iritziak askatasun eta naturaltasun osoz adierazteko eskubidea, kritikarako eskubide osoarekin, baita ordezkaritza- eta gobernu-organoei iradokizunak eta kexak aurkezteko eta haien erantzuna laster jasotzeko eskubidea ere.
- g. Zor zaien begirunez tratatuak izateko eta ezein kidek haien ezein iritzi ez gutxiesteko eskubidea.
- h. Prestakuntza politikorako eskubidea.
- i. EH Bilduren eta erakunde publikoetan dituen ordezkarien ekintza politikoa kontrolatzeko eskubidea.
- j. Ezein arrazoiengatik diskriminaziorik ez jasotzeko eskubidea.
- k. Bilkideen eskubideen defentsaz arduratzen den organora jotzeko eskubidea.
- l. Emakume bilkideen kasuan, emakumeen ahalduntzea sustatu eta kalitateko jardunbide politikoa bermatuko duen esparru propio bat izateko eskubidea.
- m. 30 urtetik beherako bilkideen kasuan, haien ahalduntzea sustatu eta kalitateko jardunbide politikoa bermatuko duen esparru propio bat izateko eskubidea.

9. ARTIKULUA. BILKIDEEN BETEBEHARRAK

- a. EH Bilduren helburuekin bat etortzea eta helburu horiek lortzen laguntzea.
- b. Estatutuetan eta legeetan xedatutakoa eta barne arauak betetzea.
- c. EH Bilduko zuzendaritza-organoek balio osoz hartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.
- d. Estatutu hauei eta barne arauari jarraikiz bilkide bakoitzari dagozkion kuotak eta bestelako ekarpenak ordaintzea. Afiliazioari datxekion eskubideak (botoa emateko eskubidea barne) baliatze-ko, bilkideek egunean izan beharko dituzte beren finantza-betebeharrak.

- e. EH Bilduk deitutako egintza organiko eta politikoetan aktiboki parte hartzea.
- f. Gainerako bilkideak zor zaien begirunez tratatzea, haien iritzia eta parte hartzeko edo ekarpenak egiteko dituzten modu eta intentsitateak gutxietsi gabe.
- g. Desadostasunak adierazteko EH Bilduk lege ezarritako bideak eta esparruak erabiltzea.
- h. EH Bilduren ideia politikoak eta zuzendaritza-organismoek hartutako erabakiak zabaltzea.
- i. Ematen zaizkien funtzioak edo ahalmenak betetzeko esleitutako Federazioaren ondasunak eta baliabideak haien helburuekin baino ez erabiltzea, eta erabileraren inguruan kontuak ematea.
- j. EH Bilduren Kode etikoan ezarritakoa errespetatzea.
- k. EH Bilduk onartuta duen Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa ezagutzea, errespetatzea eta aplikatzea.
- l. Helburu politikoak lortzeko indarkeriaren erabilera gaitzestea eta, beraz, edozein giza eskubide erasotu edo urratzen duen edozein ekintza edo jardura gaitzestea.

10. ARTIKULUA. BILKIDEAREN BAJA

Bilkide izaera galtzen da:

- a. Bilkidearen heriotzagatik.
- b. Borondatezko bajagatik. Horretarako, plataforma telematikoa dagoen formularioa bete edota idatzizko jakinarazpen bat bidali behar zaio bilkidea adskribatuta zegoen tokiko egiturari.
- c. Kuota ez ordaintzeagatik tartean justifikazio nahikorik egon gabe. Hegoaldeko Idazkaritza izango da egoera hori aztertuko duena eta, hala badagokio, Estatutu hauen 7.c artikulua aplikatuko duena.
- d. Hegoaldeko Idazkaritzaren edo Kontrol eta Berme Batzordearen erabaki irmoagatik, EH Bilduren zehatzeko ahalmena eta diziiplina-araubidea aplikatzearen ondorioz.

11. ARTIKULUA. ZEHATZEKO AHALA ETA DIZIPLINA-ARAU BIDEA

- 1. Zehatzeko ahala eta diziiplina-araubidea egikaritzea ondorengo organoei dagokie:
 - a. Hegoaldeko Idazkaritza izango da zehapen-organoa, hau da, zehatzeko ahala izango duen organoa.
 - b. Antolaketa Idazkaritza izango da organo izapidetzailea, eta bera arduratuko da diziiplina-prozeduraren izapidetzea bultzatzeaz, baita pertsona instruktorea hautatzeaz ere, eta pertsona hori arduratuko da espedientearen instrukzioa eramateaz.
- 2. Federazioarekiko betebeharrak betetzen ez dituen bilkidea, edo EH Bilduren estatutuak eta/edo printzipioak kaltetzen edo urratzen dituen jokabide publiko edo pribatua duena, aplikatu beharreko diziiplina-araubidearen mende egongo da.

3. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

a. Arau-hauste arintzat hartuko da honako jokabide hauetako bat agertzea:

- i. Agindutako funtzio edo karguak betetzean zabarkeriaz edo utzikieriaz jardutea.
- ii. Behar bezala arrazoitutako justifikaziorik gabe, kargu publikoak eta/edo organikoak dituzten bilkideek egintza organiko eta/edo publikoetan ez parte hartzea.
- iii. EH Bilduren baitan legez ezarritako bideak eta esparruak ez erabiltzea desadostasunak adierazteko.
- iv. Estatutu hauek bilkideentzat ezartzen duten betebeharren bat puntualki ez betetzea, baldin eta hurrengo b) edo c) idatz-zatietan berariaz jasota ez badaude.
- v. Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa aplikatuz, 1. Mailako prozedura baten subjektua izatea.

b. Arau-hauste larritzat hartuko da honako jokabide hauetako bat agertzea:

- i. EH Bilduren batzarren eta gainerako organoen akordio eta erabakiei entzungor egitea.
- ii. EH Bilduren oinarri ideologiko eta programatikoei zein haren antolamendu-batasunari eraso egitea.
- iii. Kuota behin eta berriz ez ordaintzea, horretarako arrazoi nahikorik ez dagoenean.
- iv. Buruzagi eta hautetsien estatutu-desbideratzeak, zintzotasunik eza edo eraginkortasun politikorik eza.
- v. EH Bilduri ospea kentzen dioten edo erakundea edo haren organoak iraintzen dituzten albiste faltsuak zabaltzea.
- vi. EH Bilduren izenean erakundea konprometitzen duten adierazpen publikoak egitea, órgano eskudunaren baimenik gabe, EH Bilduren irudi publikoarentzat eta/edo antolamendu-batasunarentzat kaltegarria denean.
- vii. Ez dagozkion mota edo izaera orotako kargu edo funtzioak faltsutzea edo betetzea.
- viii. Bi arau-hauste arin edo gehiago egiteagatik zehapena jasotzea 12 hilabeteko epean.
- ix. Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa aplikatuz, 2. Mailako prozedura baten subjektua izatea.

c. Arau-hauste oso larritzat hartuko da honako jokabide hauetako bat agertzea:

- i. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotako eskubideetako edozeini erasotzea.
- ii. Ordezkaritza-kargu publiko bat edo garrantzi publikoko kargu organiko bat izanik, adierazpen publikoak egitea, erakundea konprometituko dutenak eta EH Bilduren irudi publikoarentzat eta/edo antolamendu-batasunarentzat kalte larria eragingo dutenak.
- iii. EH Bilduren Kode etikoa urratzea.

- iv. EH Bilduk onartuta duen Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa ezagutzeko, errespetatzeko eta aplikatzeko betebeharra ez betetzea.
 - v. Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloan ezarritako ebazpenak eta ondorioak, kasuen kudeaketatik eratorritakoak, urratzea, desobeditzea, desitxuratzea edo mespretxatzea.
 - vi. Federazioaren ondasunak edo funtsak bidegabeki besterentzea edo esleitzea.
 - vii. Kargu publikoak eta/edo organikoak betetzean EH Bilduren printzipioen aurka jardutea.
 - viii. Kargu publikoak eta/edo organikoak betetzean edozein ustelkeria motatan jardutea.
 - ix. Kargu organiko bat betetzeagatik ezagutzen den informazio erreserbatua beste erakunde politikoei edo pertsonaei ematea.
 - x. EH Bilduren oinarri ideologiko eta programatikoei zein haren antolamendu-batasunari era larrian eta behin eta berriz erasotzea.
 - xi. EH Bilduren aurkako alderdi edo elkarten ekintza politikoarekiko elkartasuna agertzea edo ekintza horretan laguntzea, eta/edo eragile politikoekin edo herritarrekin EH Bilduren edo haren organoen aurka konjuratzea.
 - xii. EH Bilduren batzarren eta gainerako organoen erabakiei dagokienez diziplinarik gabe jokatzeko.
 - xiii. Artikulu honetan adierazitako diziiplina-organoetan funtsik gabeko gertakariekin eta iruzurasmoz salaketa bat aurkeztea.
 - xiv. Hauteskundeetan edozein kargu lortzeko beste alderdi politiko edo hauteskunde-koalizio bateko hautagaia izatea, Hegoaldeko Mahai Politikoak espresuki baimentzen duenean izan ezik.
 - xv. Alderdi Politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoaren 9.3 artikuluan aurreikusitako jokatbideren bat edo batzuk behin eta berriz egitea.
 - xvi. Bi arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik zehapena jasotzea 12 hilabeteko epean.
 - xvii. Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa aplikatuz, 3. edo 4. Mailako prozedura baten subjektua izatea.
4. Honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira arau-haustek egiteagatik:
- a. Bilkideari kargu-hartzea edo ohartarazpena; zehapen hori bilkidea parte den eta/edo parte hartzen duen organoaren eremura mugatuta egongo da.
 - b. Isuna.
 - c. EH Bilduk antolatutako edo kudeatutako espazio publiko edo pribatueterako sarbidea aldi baterako etetea.
 - d. Kargu organikoak eta publikoak betetzeko aldi baterako desgaitzea, eta, hala badagokio, parte hartzen ari den karguetatik kentzea.

- e. EH Bilduko kide-izaeraren aldi baterako etetea.
 - f. Bilkide gisa kargu-uztea, afiliazioan baja ematea eta EH Bilduk kudeatzen dituen guneeetatik kanporatzea.
- c), d) eta e) idatz-zatietan jasotako zehapenak batera aplikatu ahal izango dira, eta ez dira elkarren baztertzailerak izango.
5. Zehapen-Organok edozein unetan kautelazko edo behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko, prozedura oztopatzea saihesteko, antzeko egitateak errepikatzea eragozteko, eragindako kalteak arintzeko, egitateen larritasunagatik eta/edo alarma sozialeko arrazoiengatik.
- 6/2002 Lege Organikoari jarraikiz, kautelazko etete automatikoa ezartzen da ustelkeriarekin lotutako delituagatik ahozko epaiketa zabaltzeko autoa eman den zigor-arloko prozesu batean dauden bilkideen afiliazioari dagokionez, baita alderditik kanporatua izateko zigorra ere delitu horietakoren batengatik epai irmo batekin kondenatuak izan direnen kasuan ere.
6. Bilkideak babes-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Kontrol eta Berme Batzordearen aurrean zehapen-organoren ebazpenaren aurka, bai eta kautelazko edo behin-behineko neurrien aurka ere.
7. EH Bilduk, oro har, barne-gatazkak elkarriketaren eta adiskidetzaren bitartez bideratzea sustatuko du, bilkideen artean zein bilkide horien eta Federazioaren organoen artean. Zigor-espediente bati hasiera formalki eman baino lehen, alderdien arteko alde aurreko adiskidetz-ekitaldi bat bultzatzeko aukera balioetsi beharko du, salbu eta egitateen izaerak, larritasunak edo urgentziak hori egitea modu justifikatuan saihesten badute.
- Horri dagokionez, eta prozedura hori arautzeko, Diziiplina eta Berme Kodea 1/2025 Lege Organikoan bildutako justizia berrezartzailearen printzipioetan inspiratuko da, kaltearen erreparazioa, elkarrekiko onarpena eta barne-bizikidetzaren berregitea bultzatuz.
8. Artikulu hau Diziiplina- eta Berme-kodearen bidez garatuko da. Kode horrek afiliatuen arau-haustea eta zehapenak arautuko ditu, bai eta horiek ezartzeko prozedura ere, honako hauek bermatuz: kontraesaneko instrukzioa, instrukzioa irekitzea eragin duten egitateei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, zehapenaren aurreko entzunaldia eta zehapen-erabakiaren motibazioa.

III. Kapitulua

Ordezkaritza, gobernu eta administrazio organoak

12. ARTIKULUA. PRINTZPIO OROKORRAK ETA FUNTZIONAMENDU-PRINTZPIOAK

1. Alderdi politikoek eta bilkideek osatzen dute EH Bildu. Gaur egun, hiru alderdik osatzen dute EH Bildu: Sortu, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba.

Nahi duten alderdi guztiak sartu ahal izango dira EH Bildun. Era berean, EH Bildu osatzen duen alderdi orok bere borondatez utzi ahal izango du Federazioa. Kasu batean zein bestean, dagokion erregelamendua egingo da.

Alderdi politikoek ordezkari bat izango dute Hegoaldeko zuzendaritzan (Mahai Politikoan) zein, hala badagokio, herrialde bakoitzean, eta ordezkarien batura zuzendaritza bakoitzeko kideen guztizko kopuruaren % 50 izango da gehienez.

Bestalde, alderdi bakoitzak ordezkari bat izango du Alderdien Mahaian. Organo horren onarpena ezinbestekoa izango da erabaki jakin batzuk hartzeko.

2. Irizpide orokor gisa, erabakiak bilkideen esku egongo dira, 'bilkide bat boto bat' printzipio demokratikoari jarraikiz. Erabaki jakin batzuek, ordea, EH Bilduren izaera bera eraginpean hartzen dutelako, onarpen bikoitza beharko dute (bilkideena batetik, eta alderdiena bestetik).

Hona hemen erabaki horiek:

- Estatutu hauek aldatzea.
 - Federazioan alderdi politiko berriak sartzea.
 - Beste alderdi politiko batzuekin hauteskunde-koalizioak osatzea.
3. Estatutuak biltzar-prozesuan aldatzeko (funtsezko aldaketa edo ez-funtsezko aldaketa), Alderdien Mahaiaren zein Biltzarraren onarpena beharko da, eta alderdi politiko berriak sartzeko eta beste alderdi politiko batzuekin hauteskunde-koalizioak osatzeko, berriz, Alderdien Mahaiaren zein Batzar Nagusiaren onarpena.
 4. Biltzar-prozesutik kanpo egindako estatutuen funtsezko aldaketak Hegoaldeko Mahai Politikoaren proposamen formala, Alderdien Mahaiaren baliozkotzea eta Kontrol eta Berme Batzordearen aldeko irizpena beharko ditu Batzar Nagusira bertaratzen diren bilkideen bi here-nek (2/3) osatutako gehiengo indartuak onartu dezan.

5. Biltzar-prozesutik kanpo dauden ez-funtsezko aldaketak lehenengo xedapen orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira, eta honako hau beharko dute betiere: Hegoaldeko Idazkaritzaren proposamena eta onarpena, eta Kontrol eta Berme Batzordearen aldeko irizpena, eta batzordeak arrazoitu egin beharko du betiere aldaketa ez-funtsezkoa dela.
6. Horretan oinarrituta, erakundearen egiturak eta funtzionamenduak barne-demokraziako irizpideei erantzungo diete, eta irizpide horiek islatuko dituzten arauak honako alderdi hauek bermatuko dituzte:
 - a. Borondate kolektiboa osatzerakoan, kide guztiek (emakumeek zein gizonek) baldintza eta aukera berdinekin parte hartzeko aukera.
 - b. Barneko erabaki-organoen burujabetza. Organo horiek erabateko autonomiarekin jardungo dute eztabaidetan eta erakundearen ildo politikoa finkatzean.
 - c. Koalizioaren aniztasun politiko eta idologikoa.
7. Horren ondorioz:
 - a. Bilkide guztien berdintasuna ezarriko da, pertsona bat boto bat printzipioan oinarrituta.
 - b. Biltzarreko erabaki oro sufragio unibertsal, zuzeneko eta sekretuaren bidez hartuko da.
 - c. EH Bilduko zuzendaritza eta ordezkaritza kargudun hautagarriak sufragio unibertsal, libre, berdina, zuzeneko eta sekretuaren bidez aukeratu dira, alderdi politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoaren 3.2 j) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
 - d. Maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketa kontrolatu eta fiskalizatzeko mekanismoak egongo dira.
 - e. EH Bilduko zuzendaritza eta ordezkaritza edozein kargudun hautagarriaren agintaldia errebotatzeko mekanismoak egongo dira.
 - f. Afiliatuek organoen akordio eta erabakien inguruko erreklamazioak egiteko prozedurak egongo dira. Organo horien ebazpenak, nolana ere, Kontrol eta Berme Batzordean errekurritu ahal izango dira.
 - g. Zuzendaritza-organoetan zein hauteskunde-zerrendetan, bozeramailetzetan, lantaldeetan eta abarrean gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko dira.
 - h. Zuzendaritza-organoetan zein hauteskunde-zerrendetan, bozeramailetzetan, lantaldeetan eta abar lurralde-oreka zein adin-oreka bermatzeko neurriak ezarri beharko dira.
 - i. Agintaldien segidarako muga bat ezarri beharko da.
 - j. Bateriaezintasun-irizpideak ezarri beharko dira, karguak (barnekoak eta kanpokoak) aldi berean ez metatzeko edota aldi berean erantzukizun asko ez edukitzeko.
 - k. Antolamenduaren zein kontuen gardentasuna bermatu, eta desadostasunak konpontzeko bide eta prozedura egokiak ezarri beharko dira.

- l. Garrantzi handiko erabakiak hartzeko erreferendum-prozedurak antolatzea.
- m. Eztabaida eta erabakietan jarduteko irizpide orokor gisa, akordio zabalak eta koalizioan dauden sentsibiltate politiko-ideologiko desberdinen izendatzaile komunetako txikiena bilatu beharko dira.
- n. EH Bilduren gobernu-organo guztien erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta lotesleak izango dira guztientzat, gutxiengoak bere tesiak defendatzeko eta EH Bilduren barruan adierazteko dituen eskubidea galarazi gabe.

Antolamendu-bizitzaren barruan, EH Bilduk barneko adierazpen-askatasuna eta parte-hartzean oinarritutako eztabaida ireki eta librea bermatuko ditu, eta gainerako bilkideekiko errespetua izango da muga bakarra.

Azkenik, EH Bildu osatzen duten alderdiek erabateko askatasuna izango dute EH Bilduren jardun-esparru komunitet kanpo beren diskurtso, profil eta esparruei eusteko edota sendotzeko, haiek sendotzeak EH Bilduren esparru komuna sendotzea ekarriko baitu.

13. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-ZERRENDAK EGITEA

EH Bildu osatzen duten sentsibiltate politiko guztien ordezkaritza bermatzeko, dagokien erregelamenduaren bidez garatu beharreko honako irizpide orokor hauek erabiliko dira:

- Zerrendaburua prozesu parte-hartzaileen bidez hautatuko dute bilkideek eta, hala balegokio (hau da, aukera hori emango balitz), horretarako espresuki inskribatutako pertsona guztiek.
- Gainerako hautagaiak zerrenden batzorde batek proposatuko ditu, hautesbarrutian edo dagokion hauteskunde eremuan berariaz sortuko denak. Guztiak, banan-banan, berretsi beharko dituzte bilkideek eta, hala badagokio, horretarako espresuki inskribatutako pertsona guztiek, betiere, jakina, dagokion hautesbarrutian edo hauteskunde eremuan.
- Batzorde hori osatuko dute:
 - » EH Bildu osatzen duen eta hautesbarrutian edo hauteskunde eremuan antolatuta dagoen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek, betiere alderdiak bi edo gehiago badira.
 - » Hautesbarruti edo hauteskunde eremu horri dagokion Batzarrak aukeratutako beste hainbeste bilkidek.
 - » Zerrendaburuak, batzordean sartuko denak behin hautatua izan eta gero..
- Hauteskunde-zerrendak osatzeko prozesuan, Alderdien Mahaiak proposamenak aurkeztu ahal izango ditu, erregelamenduetan horretarako ezarritako unean.

14. ARTIKULUA. GOBERNU ORGANOAK

EH Bilduren gobernu organoak honako hauek dira: Biltzarra, Batzar Nagusia, Hegoaldeko Mahai Politikoa, Hegoaldeko Idazkaritza, idazkari nagusia, Alderdien Mahaia, Herrialdeko Batzarrak, Herrialdeko Mahai Politikoak (halakorik badago), Herrialdeko Idazkaritzak, Tokiko Batzarrak,

Tokiko Mahai Politikoak (halakorik badago) eta Tokiko Idazkaritzak.

Organo horiek lau urtean behin berrituko dira.

Hegoaldeko Idazkaritza eta Hegoaldeko Mahai Politikoa osatzen duten arduradunak sufragio unibertsal, zuzeneko eta sekretuaren bidez aukeratuko dira, dagokion biltzar-prozesuaren barruan, estatutu hauetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Herrialdeko Batzarren, Herrialdeko Mahai Politikoen, Herrialdeko Exekutiboen, Toki Batzarren, Tokiko Mahai Politikoen eta Toki Exekutiboen kasuan, haietako kideak sufragio unibertsal, zuzeneko eta sekretuaren bidez aukeratuko dituzte halaber, estatutuetan eta Hegoaldeko Idazkaritzak horretarako onartzen duen erregelamenduzko araudian aurreikusitakoari jarraikiz, Kontrol eta Berme Batzordearen aldez aurreko irizpenaren ondoren.

Edozein kasutan ere, estatutuetan ezarritako printzipio eta bermeak errespetatu beharko dituzte prozedura horiek. Hegoaldeko Idazkaritzak bere neutraltasun instituzionalari eutsiko dio, tratu inpartzial, ekitatibo eta interferentziarik gabea ziurtatuz hautagaitza eta proposamen guztietarako. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna eta ordezkaritza orekatua bermatuko da.

15. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDU PRINTZPIOAK ETA ARAU OROKORRAK EH BILDUKO ORGANO POLITIKO GUZTIENTZAT

Estatutu hauetan onartzen diren kide anitzeko organoen bilerak, espresuki beste epe bat ezartzen denean izan ezik, arrazoizko aurrerapen batekin deitu beharko dira, eta 48 orduko aurrerapenarekin gutxienez, kide guztiei komunikazio idatzi bat igorritz, ahal dela elektronikoa, eta bileraren gai-zerrenda, eguna, ordua eta tokia adierazita. Presa akreditatzen bada soilik izango da gutxienezko epea edo adierazitako modua errespetatzen ez duten bilerak deitzeko aukera.

Organoa behar bezala eratu ahal izateko, eta Estatutu hauetan beste zerbait ezartzen ez bada, organoko kideen herena bertaratzea eskatuko da, presako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, organoaren zuzendariak edo arduradunak azalduko du zein diren bilera quorum txikiago batekin egitea ahalbidetzen duten arrazoiak, eta proposamen hori bozkatzeko aurkeztuko du. Kasu horietan, hartutako erabakiak ahalik eta azkarren berretsi beharko dira. Biltzarra eta Batzar Nagusia eratzeko, bertaratze eskubidea duten ordezkarien kopuruaren arabera izango da quoruma.

Zuzendariak edo arduradunak bideratuko ditu Federazioko kide anitzeko organoen eztabaida eta deliberazioak. Esku-hartzaileen kopurua eta denbora zabaltzeko edo mugatzeko aukera izango du, eta eztabaida amaitutzat jotzeko aukera ere izango du, eztabaida ixteko garaia dela deritzon.

Gai-zerrendako puntu bakoitza aurkeztu ondoren, hitza eskatzen duten organoko kideei eman behar zaie hitza. Norbaitek arrazoibide bat eman ondoren beste esku-hartzaile baten edo batzuen kontrako iritzia jasotzen badu, erantzuteko edo esandakoa zuzentzeko eskubidea izango du, behin bakarrik eta zuzendariak edo arduradunak ezarritako denboran. Emandako erantzunari erantzuteko eskubidea ere izango da, denbora berarekin. Jarraian, bozketa egingo da, proposamena onartu edo atzera botatzeko.

Botoen gehiengo sinpleaz onartzen dira akordioak, Estatutuen arabera gehiengo kualifikatu baten beharra duten kasuetan izan ezik.

Kide anitzeko organo baten edozein bozketa ezkutuko boto bidez egin beharko da, baldin eta bertaratutako kideen gutxienez bosten batek hori eskatzen badu, baita bozketa bitarteko telematikoak erabiliz egiten denean ere, eta hori dagokion aktan jaso beharko da.

Bileran hartutako erabakiak akta batean jaso beharko dira, organoko kide guztien eskura jartzeko. Akta guztiak artxibo bakar batean bilduko dira, organoko idazkaritza-eginkizunen ardura duen pertsonaren ikuskaritzapean.

Bilkideek Federazioko organoen bileretako aktak eskuratzeko eskubidea izango dute. Akta eskuratzeko eskaera egingo da eskaera arrazoitu bat aurkeztuz, eta eskaeraren eraginpeko organoak onartu beharko du eskaera, legez babestutako datuei buruzkoa ez bada betiere.

Batzar Nagusiak onartuko duen Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan xedatuko da Estatutu hauetan aurreikusi ez den guztia.

16. ARTIKULUA. BILTZARRA

1. Biltzarra EH Bilduren organo gorena da, eta honako eskumen hauek ditu:

- Hegoaldeko Mahai Politikoa zein Idazkaritza (kide hautagarriak eta alderdien ordezkariak ez diren kideak), Kontrol eta Berme Batzordea eta Kontu Batzordea aukeratzea.
- Estrategia eta ildo politiko orokorra finkatzea.
- Estatutuak aldatzea (koalizioaren oinarri politiko-ideologikoak eta antolamendu-oinarriak), Alderdien Mahaiarekin batera.
- Estatutu hauetan esleitzen zaizkion gainerako guztiak.

Biltzarrean parte hartu ahal izango dute, hitzarekin eta botoarekin, deialdia egiteko unean gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna duten eta kuoten ordainketan egunean dauden bilkideek. Beharrezkoa izango da bilkideen %15eko partaidetza, gutxienez, Biltzarra baliozkoa izateko eta eratzeko. Biltzarreko Erregelamenduak ahalbidetu ahal izango du 5. artikuluan aipatzen diren hurbileko pertsonak edo jarraitzaileak parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe, eta ezarriko diren gainerako mugekin.

Batzar Nagusiak deituta, Biltzarra lau urtean behin bilduko da ohiko izaeraz, eta ez ohiko izaeraz bilduko da Batzar Nagusian bi hereneko gehiengo batek (Hegoaldeko Mahai Politikoa gehiengo osoak edo bilkideen %25ak eskatuta) edo Alderdien Mahaian gehiengo osoak hala eskatzen badu.

Batzar Nagusiak gutxienez 60 egun lehenago finkatuko ditu biltzeko egunak eta lekua Biltzarra ohikoa denean, eta 30 egun lehenago ezohikoa baldin bada.

Biltzar-prozesua hasi baino gutxienez 15 egun lehenago, Hegoaldeko Idazkaritzak behin-behineko gai zerrendaren proposamen bat eta Hegoaldeko Mahai Politikoa landutako ponentziaren edo oinarritzko ponentzien kopia bat bidaliko dizkie biltzarkide guztiei. Hegoaldeko

Mahai Politikoaren, Hegoaldeko Idazkaritzaren, Kontrol eta Berme Batzordearen eta Kontu Batzordearen kudeaketa-memoriak ere bidaliko dizkie.

2. Eskubide osoko biltzarkideek gai zerrendarako iradokizunak egin eta edozein arlori buruzko proposamenak, zuzenketa partzialak edo ponentzia alternatiboak aurkeztu ahal izango dituzte, arlook oinarritzko ponentzietan jasota egon edo ez. Hegoaldeko Idazkaritza arduratuko da ares-tian adierazitako proposamenak Biltzarraren aurretik eztabaidatuko direla bermatzeaz, horrela Biltzarreko gai zerrendan txertatuko diren ala ez erabaki ahal izan dadin.
3. Biltzarraren garapenean, eztabaidatzeko eta erabakitzeko prozedura presentzialak zein telematikoak erabili ahal izango dira, eta, nolana ere, Biltzarra egiteko finkatutako data baino hamabost egun lehenago gutxienez, jasotako zuzenketa eta proposamen guztiak bilduko dituen memoria bat bidaliko die Hegoaldeko Mahai Politikoak biltzarkide guztiei, adieraziz, hala bada-gokio, zein diren gai zerrendan txertatzeko behar den babesa lortu dutenak eta lortu ez dutenak.
4. Biltzarra zuzenduko duen Mahaiaren hautaketa Hegoaldeko Mahai Politikoak proposatuta egin-go da, bertaratutakoen botoaren bidez, Biltzarra aurrez aurre eginez gero, eta Hegoaldeko Mahai Politikoaren izendapenaren bidez telematikoki eginez gero.
5. Biltzarreko erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira, Federazioaren desegiteari bu-ruzkoa izan ezik. Kasu horretan, 53. artikuluan ezarritako gehiengoak hartuko du erabakia.

17. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA

1. Batzar Nagusia EH Bilduren organo gorena da Biltzar batetik besterako aldian, eta biltzarrean onartutako ebazpenen betetzea bermatzen du.
2. Batzar Nagusia bi modalitatetan egin ahal izango da:
 - a. Modalitate unibertsala (ohikoa): bilkide guztiek hartuko dute parte, hitzarekin eta botoare-kin.
 - b. Ordezkaritza bidezko modalitatea (salbuespenez). Parte hartuko dute:
 - » 25.4 artikuluan ezarritako prozedurari eta zenbakizko irizpideari jarraikiz aukeratutako toki-ordezkariek, hitzarekin eta botoarekin.
 - » Hegoaldeko Mahai Politikoko kideek eta exekutiboetako kideek eta, kasuan-kasuan, Herrialdeko Mahai Politikoetako kideek, hitzarekin baina botorik gabe.
3. Batzar Nagusia modalitate unibertsalean egiteko quoruma % 5ekoa izango da, eta ordezkari-tza bidezko modalitatean, berriz, ordezkarien % 60koa.
4. Ordezkaritza bidezko modalitatean erabakiak hartzeko, ordezkariak beren Tokiko Batzarren iri-tzia jaso beharko dute aldeztu aurretik, eta horren arabera jardun beharko dute.
5. Hegoaldeko Idazkaritzak deituta, urtean bitan bilduko da, gutxienez, ohiko bilkuran, eta ohiz kanpo, Alderdien Mahaiak edo bilkideen % 25ek hala eskatzen badiote, idatziz, Hegoaldeko Idazkaritzari, eta, gehienez, hilabeteko epean egin beharko da.

Deialdi arrunta gutxienez 15 egun lehenagotik egingo da, eta presako deialdia egiteko aukera ere izango da, gutxienez 24 ordu lehenagotik, eta deialdian modalitatea, data, biltzeko lekua eta aztertutako beharrekotako gai zerrenda zehaztuko dira. Presako deialdia eginez gero, ongi justifikatu beharko da, eta Batzarren hasieran onartu beharko da.

Bertaratuek gai zerrendan gaiak txertatzea proposatu ahal izango dute, eztabaidatu eta bozka daitezten, betiere proposamenak gutxienez bertaratutako ordezkarien % 5en babesa badu (ordezkaritza bidezko modalitatean), edo bertaratutako bilkideen % 5en babesa badu (modalitate unibertsalean).

6. Batzar Nagusiak honako eskumen hauek ditu:

- a. Biltzarrerako deialdia egitea.
 - b. Urtean behin Hegoaldeko Idazkaritzaren eta Mahai Politikoaren kudeaketa balioestea.
 - c. Hegoaldeko Mahai Politikoak proposatuta, EH Bilduren urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzea.
 - d. Programa Politikoa erabakitzea.
 - e. Aliantza- eta itun-politika onartzea.
 - f. EH Bildun alderdi berriak sartzeko aukera onartzea, Alderdien Mahaiarekin batera.
 - g. Beste indar politiko batzuekin hauteskunde-koalizioak egiteko aukera onartzea, Alderdien Mahaiarekin batera.
 - h. Europako hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzea, 13. artikuluan eta hura garatzen duen Erregelamenduan ezarritako irizpideei jarraikiz.
 - i. Kontrol eta Berme Batzordeak egiten duen lana ezagutzea, urteko kudeaketa-txostenari buruzko eztabaida eta bozketaren bidez.
 - j. Estatutuak garatuko dituzten Erregelamenduak onartzea.
 - k. Biltzar-prozesutik kanpo beharrezkoak diren antolamendu-egokitzapenak egitea, honako hauek barne:
 - I. Hegoaldeko Idazkaritzan edo Mahai Politikoan beren kide hautagarriei dagokienez hutsik geratutako postuak berritzea.
 - II. Federazioaren beste zuzendaritza-organoetan hutsik geratutako postuak edo baja aurreratuak betetzea.
 - III. Organo horietako kideen aurka formalki aurkeztutako errebokazio-eskaerak ebaztea.
- Kasu guztietan ere, beharrezkoa izango da Batzar Nagusiko kideen gutxienez bi herenen (2/3) aldeko botoa, estatutu hauek 12. artikuluan ezarritako gehiengo indartutako irizpideari eta eskakizunei jarraikiz.

Kasuan-kasuan aplikatuko den hautaketa-prozedura Hegoaldeko Idazkaritzak onartutako eta Kontrol eta Berme Batzordearen aldeko irizpenaren bidez baliozkotutako erregelamendu espezifiko baten bidez arautuko da, uneoro gardentasunaren, inpartzialtasunaren, pluralismoaren eta parte-hartze demokratikoaren printzipioak bermatuz.

IV. Biltzar-prozesutik kanpo dauden ez-funtsezko aldaketak onartzea, estatutu hauen 12.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

V. Estatutu hauetan esleitzen zaizkion gainerako guztiak.

7. Batzar Nagusiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, bi hereneko gehiengoaren beharra ezarri zaien gaiak eta ondorengoak, gehiengo osoa behar dutenak, izan ezik:
 - Hegoaldeko Mahai Politikoa proposatuta, Biltzarreko gai zerrenda onartzea.
 - Hegoaldeko Mahai Politikoa proposatuta, Biltzarreko batzorde antolatzailea aukeratzea.
8. Batzar Nagusia idazkari nagusiak zuzenduko du.

18. ARTIKULUA. HEGOALDEKO IDAZKARITZA

1. Hegoaldeko Idazkaritzari dagokio EH Bilduren zuzendaritza politikoa epe laburrean, Biltzarrak eta Batzar Nagusiak zehaztu eta onartutako ildo politikoaren barruan.
2. Normalean, astean behin bilduko da, idazkari nagusiak deituta, gutxienez 48 ordu lehenago.
3. Hegoaldeko Idazkaritzaren erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira, berriaz aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, kide guztiei jakinarazi behar zaie bileraren deialdia, eta gehiengo soilaren bertaratze-quoruma ere beharko da.
4. Gai zerrendan aurreikusi gabeko gaiak txertatzeko, nahikoa izango da Hegoaldeko Mahai Politikoko hiru kidek sinatzea, betiere proposamena bileraren hasieran aurkezten bada.
5. Biltzarrak hautatutako edo berretsitako hamazazpi pertsonak osatzen dute Hegoaldeko Idazkaritza. Hauek dira kideak:
 - Idazkari nagusia.
 - Antolaketa idazkaria.
 - Ekintza politikoko idazkaria.
 - Programa idazkaria.
 - Harremanen idazkaria.
 - Politika instituzionaleko arduraduna.
 - Udalgintza arduraduna.
 - Eraketa arduraduna.

- Nazioarteko politika eta harremanen arduraduna.
 - Komunikazio arduraduna.
 - Arabako arduradun politikoa.
 - Bizkaiko arduradun politikoa.
 - Gipuzkoako arduradun politikoa.
 - Nafarroa Garaiko arduradun politikoa.
 - EAEko legebiltzar-taldeko bozeramailea/lehendakaria
 - Nafarroa Garaiko legebiltzar-taldeko bozeramailea/lehendakaria.
 - Antolaketa idazkariaren albokoa.
6. Bost erantzukizun nagusiak (idazkari nagusia, Antolakuntza idazkaria, Ekintza Politikoko idazkaria, Programa idazkaria eta Harremanen idazkaria) hautagaitza kolektibo bakar gisa hautatu-ko dituzte eskubide osoko biltzarkide guztiek. Bestalde, bost Arloetako arduradunak (Politika Instituzionaleko arduraduna, Udalgintza arduraduna, Eraketa arduraduna, Nazioarteko Politika eta Harremanen arduraduna eta Komunikazioko arduraduna) eta herrialdeko arduradun politikoak banakako hautagaiak izango dira; bost arloetako arduradunak eskubide osoko biltzarkide guztiek aukeratuko dituzte; herrialdeko arduradun politikoak dagokion herrialdeko eskubide osoko biltzarkideek bakarrik aukeratuko dituzte. Azkenik, EAEko legebiltzar-taldeko bozeramailea/lehendakaria, Nafarroa Garaiko legebiltzar-taldeko bozeramailea/lehendakaria eta Antolaketa idazkariaren albokoa Idazkaritzako berezko kideak izango dira, eta, beraz, baita Hegoaldeko Mahai Politikokoak ere. Horretarako, kargua uzten duen Hegoaldeko Mahai Politikokoak Idazkaritzako hautazko kargu guztiak barne bilduko dituen proposamen bat egingo du (hau da, erantzukizun guztientzat, bertako berezko kideentzat izan ezik).
7. Hegoaldeko Idazkaritzak honako eskumen hauek ditu:
- EH Bilduren helburuak betetzeko eta bere proiektu politikoak zuzentzeko beharrezkoak diren jardura guztiak egitea.
 - Tokiko eta herrialdeko organoak gainbegiratzea, dinamizatzea, koordinatzea eta informatzea.
 - Koalizioaren barne-antolaketa bideratzea eta tokiko egiturak zabaltzea.
 - Beste erakunde politiko eta sozialekin harremanak izatea.
 - Hauteskunde-kanpainen antolaketa eta aurrekontua onartzea.
 - Batzar Nagusia zer modalitatetan egingo den erabakitzea.
 - Diziiplina- eta berme-kodean ematen zaizkion eginkizunak betetzea. Zehazki, diziiplina-espedienteak ebaztea. Ebazpen horien aurka, babes-errekurtsoa jarri ahal izango da Kontrol eta Berme Batzordean.
 - Afiliazio-eskaerak onartzea.

- EH Bilduko langileen kontratazioa onartzea.
 - EH Bilduko hautetsien eta kargu organikoen lan-erregimena onartzea.
 - Prestakuntza-programak gainbegiratzea.
8. Idazkari nagusiak proposatuta, eta betiere puntualki eta botoa emateko eskubiderik gabe, aztertu beharreko gaiagatik edota gaiaren inguruan ekarpenak egiteko gaitasunagatik interesgarritzat jotzen diren pertsonen parte hartu ahal izango dute Hegoaldeko Idazkaritzan.
 9. Antolaketa idazkariak Hegoaldeko organo guztien (hots, Biltzarraren, Batzar Nagusiaren, Hegoaldeko Mahai Politikoaren eta Hegoaldeko Idazkaritzaren) akta-liburuen kontrola eraman-go du, eta haien zaintzaz arduratuko da. Halaber, ahalmena izango du organo horiek hartzen dituzten erabakien ziurtagiriak egiteko.

19. ARTIKULUA. HEGOALDEKO MAHAI POLITIKOA

1. Hegoaldeko Mahai Politikoari dagokio EH Bilduren zuzendaritza politikoa epe ertainean, Biltzarrak eta Batzar Nagusiak zehaztu eta onartutako ildoaren barruan.
2. Normalean, gutxienez bi hilean behin bilduko da, eta ohiz kanpo, betiere ildo politikoari buruzko erabaki garrantzitsuren bat hartu behar bada. Hegoaldeko Idazkaritzak deituko du, gutxienez 48 ordu lehenago.
3. Hegoaldeko Mahai Politikoaren erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilaz hartzen dira. Hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, beharrezkoa da kide guztiei bileraren deialdiaren berri eman izana, bai eta gehiengo soilaren bertaratze-quoruma ere.
4. Gai zerrendan aurreikusi gabeko gaiak sartzeko, nahikoa izango da Hegoaldeko Mahai Politikoko bost kidek sinatzea, betiere proposamena bileraren hasieran aurkezten bada.
5. Hegoaldeko Mahai Politikoa Biltzarrak aukeratutako edo berretsitako hogeita hamazazpi pertsonak osatuko dute, eta bere osaera honelakoa izango da:
 - Hegoaldeko Idazkaritzako kideak.
 - EH Bilduko alderdi bakoitzeko ordezkari bana.
 - Madrilgo Kongresuko eta Senatuko bozeramaileak.
 - Europako Parlamentuko bozeramailea.
 - Herrialde bakoitzeko hiru kide, herrialdeko irizpideen arabera hautatuak.
 - Feminismoen idazkaria.
 - Gazteria idazkaria
6. Idazkaritzako kideak, Madrilgo Kongresuko eta Senatuko zein Europako Parlamentuko bozeramaileak, Feminismoen idazkaria eta Gazteria idazkaria Mahai Politikoko berezko kideak izango dira. EH Bildu osatzen duten alderdietako ordezkariak alderdi bakoitzak aukeratuko ditu, al-

derdi bakoitzean ezarritako prozedurari jarraikiz. Antolaketa idazkariaren albokoa azken horrek izendatuko du. Azkenik, herrialde bakoitzak herrialdeko irizpideen arabera aukeratu beharreko hiru kideak dagokion herrialdeko eskubide osoko biltzarkideek aukeratuko dituzte, hautagai-tza kolektibo bakar gisa. Horretarako, kargua uzten duen Herrialdeko Mahai Politiko bakoitzak (Idazkaritzak, Mahai Politikorik ez badago) bere herrialdeari dagokion hiruko hautagaitza-proposamen bat egingo du.

7. Hegoaldeko Mahai Politikoak honako eskumen hauek ditu:

- EH Bilduren baliabideen administrazioa eta ondarea gainbegiratzea.
- Biltzarrari Oinarrizko Ponentzia eta zuzendaritza-arganoak berritzeko hautagaitzak aurkeztea.
- Batzar Nagusiari eztabaida estrategikoetarako proposamenak helaraztea.
- EH Bilduren urteko Plan Politikoa eta aurreko urteko Plan Politikoen balantzea Batzar Nagusiari aurkeztea.
- Urteko aurrekontua eta aurreko urteko aurrekontuaren balantzea onartzea.
- Batzar Nagusiari EH Bilduren Estatutuak garatzeko Erregelamenduak proposatzea.
- Estatutuak edo argano gorenaren ebazpenak urratzen dituzten Tokiko Arganoen, Herrialdeko Arganoen eta Hegoaldeko Idazkaritzaren ebazpenak indargabetzea. Indargabetze horien aurka errekurtsioa jarri ahal izango da Kontrol eta Berme Batzordean.
- Hegoaldeko Idazkaritzak afiliazioaren arloan hartutako erabakien aurkako errekurtsioak ebaztea.
- EH Bilduk parte har lezakeen federazio edo koalizioen arganoetan legezkiokkeen ordezkariak izendatzea. Eskumen hau goragoko zuzendaritza-arganoari eskuordetu ahal izango zaie.
- EH Bilduk parte har lezakeen federazio edo koalizioen hauteskunde-zerrendetan legezkiokkeen hautagaiak izendatzea. Eskumen hau goragoko zuzendaritza-arganoari eskuordetu ahal izango zaie.
- Hegoaldeko Idazkaritzak Mahai Politikoaren esku uzten dituen erabaki guztiak.

8. Mahai Politikoak eskumena eskatu ahal izango du Hegoaldeko Idazkaritza arduratzen ari den edozein gai edo erabakiren gainean.

9. Idazkari nagusiak proposatuta, eta betiere puntualki eta botoa emateko eskubiderik gabe, aztertu beharreko gaiagatik edota gaiaren inguruan ekarpenak egiteko gaitasunagatik interesgarritzat jotzen diren pertsonen parte hartu ahal izango dute Hegoaldeko Mahai Politikoan.

20. ARTIKULUA. IDAZKARI NAGUSIA ETA OHOREZKO PRESIDENTEA/K

1. Idazkari nagusiak ondorengo eskumenak ditu:

- Batzar Nagusiaren eta Hegoaldeko Idazkaritzaren eta Mahai Politikoaren bilkurak zuzentzea, bai eta parte hartzen duen egintza eta bilera organiko guztiak ere.

- Hegoaldeko Idazkaritzako eta Mahai Politikoko bozeramailea izatea, bai eta EH Bilduko bozeramaile nagusia ere.
 - Parte hartzen duen ekitaldi guztietan eta harreman nazionaletan zein nazioartekoetan EH Bilduren ordezkari politiko nagusia izatea.
 - EH Bilduren legezko ordezkaria izatea edozein organoren aurrean, bereziki, administrazio-edo jurisdikzio-organoen aurrean; bere kabuz edo behar bezala ahalordetutako pertsona baten bidez jardun ahal izango du.
 - Estatutu hauetan esleitzen zaizkion gainerako guztiak.
2. Biltzarrak edo Batzar Nagusiak ohorezko presidente izendatu ahal izango ditu, EH Bilduren proiektua indartzean funtsezko ekarpen bat egin duten pertsonak. Ohorezko presidenteei ordezkaritza eta ohorezko funtzioak izango dituzte.

21. ARTIKULUA. ALDERDIEN MAHAIA

1. Alderdien Mahaia EH Bildu osatzen duten alderdien ordezkaritza-organoa da. Organo horren onarpena nahitaezkoa da erabaki jakin batzuk hartzeko.

Alderdien Mahaia bere kabuz erabakitzen duen maiztasunarekin eta bere kabuz erabakitzen duen kideak deituta bilduko da.

Ezohiko izaeraz, kideren batek eskatzen duen guztietan bilduko da. Nolanahi ere, deialdia 48 ordu lehenago egin beharko da gutxienez. Alderdiaren Mahaiaren erabakiak kideen gehiengo osoz hartuko dira. Hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, kide guztiei jakinarazi behar zaie bileraren deialdia, eta gehiengo soilaren bertaratze-quoruma behar da.

Gai-zerrendan aurreikusi gabeko gaiak txertatzeko, nahikoa izango da edozein kidek eskatzea, betiere proposamena bileraren hasieran aurkeztzen bada.

2. Alderdien Mahaia alderdietako ordezkari banarekin osatuko da. Ordezkari horiek beren alderdiek aukeratuko dituzte, alderdiek ezarritako prozedurari jarraikiz.

3. Alderdien Mahaiak honako eskumen hauek ditu:

- Estatutuak aldatzea (koalizioaren oinarri politiko-ideologikoak eta antolamendu-oinarriak), Biltzarrarekin batera.
- EH Bildun alderdi berriak sartzeko aukera onartzea, Batzar Nagusiarekin batera.
- Beste indar politiko batzuekin hauteskunde-koalizioak egiteko aukera onartzea, Batzar Nagusiarekin batera.
- Biltzarrean, Batzar Nagusian, Hegoaldeko Mahai Politikoa edo Hegoaldeko Idazkaritzan edozein motatako proposamenak egitea.
- Estatutu hauetan esleitzen zaizkion gainerako guztiak.

22. ARTIKULUA. HERRIALDEKO BATZARRA

1. Herrialdeko Batzarra herrialdeko erabaki-organo gorena da, eta Herrialdeko Idazkaritzak (Mahai Politikoak ere, baldin badago) eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Nafarroa Garaiko Parlamentuko taldeek haren agindua bete beharko dute, eta hari kontuak eman beharko dizkiote.
2. Herrialdeko Batzarra bi modalitatetan egin ahal izango da:
 - Modalitate unibertsala (ohikoa): herrialdeko bilkide guztiek hartuko dute parte, hitzarekin eta botoarekin.
 - Ordezkaritza bidezko modalitatea (salbuespenez). Parte hartuko dute:
 - » Herrialdeko tokiko ordezkariak, hitzarekin eta botoarekin.
 - » Herrialdeko Idazkaritzako kideak eta, hala badagokio, Herrialdeko Mahai Politikoko kideak, hitzarekin baina botorik gabe.
3. Herrialdeko Batzarra modalitate unibertsalean egiteko quoruma % 5koa izango da, eta ordezkaritza bidezko modalitatean, berriz, ordezkarien % 60koa.
4. Ordezkaritza bidezko modalitatean erabakiak hartzeko, ordezkariak beren Tokiko Batzarren iritzia jaso beharko dute aldez aurretik, eta horren arabera jardun beharko dute.
5. Honako funtzio hauek ditu:
 - Ildo politiko orokorra herrialdera eramatea.
 - Herrialdeari baino ez dagozkion gaien inguruko gogoeta egitea eta erabakiak hartzea, antolamendu-alderdiak barnean hartuta, hala nola beharrezkotzat hartzen dituen lantaldeak osatzea eta Herrialdeko Idazkaritzaren osaera (eta Mahai Politikoarena, hala badagokio) herrialdeko premietara egokitzea.
 - Herrialdeko Idazkaritza eta, hala badagokio, Mahai Politikoa hautatzea, Herrialdeko arduradun politikoa izan ezik, dagozkion herrialdeko eskubide osoko biltzarkideak hautatuko dutena.
 - Beharrezkoak diren antolamendu-doikuntzak egitea eta Herrialdeko Idazkaritzan eta, hala badagokio, Mahai Politikoa hutsik geratu diren tokiak berritzea (Herrialdeko arduradun politikoa barne). Halaber, Herrialdeko Idazkaritzako eta, hala badagokio, Mahai Politikoko kideen aurka (Herrialdeko arduradun politikoa barne) aurkeztutako errebokatze-eskaerak ebatziko ditu.
 - Batzar Nagusietarako, Autonomia Erkidegoko (Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako bilkideak hautatuko dute lehendakariagaia) eta Estatuko hauteskundeetarako herrialdeko hautagaiak aukeratzea, 13. artikuluan eta hura garatzen duen Erregelamenduan ezarritako irizpideei jarraikiz.
6. Herrialdeko Batzarrak ez du aldizkakotasun finkorik izango, baina urtean bi aldiz bildu beharko du gutxienez, herrialdeko arduradun politikoa deituta.

23. ARTIKULUA. HERRIALDEKO IDAZKARITZA

1. Herrialdeko Idazkaritza herrialdeko zuzendaritza politikoko organoa da, eta Hegoaldeko Idazkaritzaren antzeko ezaugarriak ditu.
2. Honako funtzio hauek ditu:
 - Herrialdeko Batzarra dinamizatzea.
 - Herrialdeko ildo politikoa planifikatu eta dinamizatzea, ildo politiko orokorra herrialdean deklinatuz eta, hala badagokio, herrialdeko lan-ildo propioekin osatuz.
 - Batzar Nagusietako taldea (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan) eta Nafarroa Garaiko legebiltzar-taldea gainbegiratu, dinamizatu, koordinatu eta informatzea.
 - Herrialdeko Batzarra zein modalitatetan egingo den erabakitzea.
3. Honako osaera hau du:
 - Herrialdeko arduradun politikoa.
 - Herrialdeko Eraketa arduradun politikoa.
 - Herrialdeko hiriburuko arduradun politikoa.
 - Herrialdeko Politika Instituzionaleko arduraduna.
 - Herrialdeko Udalgintza arduraduna.
 - Herrialdeko Komunikazio arduraduna.
 - Batzar Nagusietako taldeko bozeramailea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) / Legebiltzar-taldeko bozeramailea (Nafarroa Garaia)
4. Herrialdeko arduradun politikoa dagokion herrialdeko eskubide osoko biltzarkideek hautatuko dute Biltzarrean. Herrialdeko hiriburuko arduradun politikoa Herrialdeko Hiriburuko Batzarrak hautatuko du. Herrialdeko Udalgintza, Politika Instituzional, Eraketa eta Komunikazio arduradunak Herrialdeko Batzarrak hautatuko ditu, batera. Batzar Nagusietako taldeetako bozeramaileak (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan) eta legebiltzar-taldeko bozeramailea (Nafarroa Garaian) dagokien Herrialdeko Idazkaritzako kide dira beren karguagatik eta, hortaz, berezko kide dira, ez hautagarriak.
5. Herrialdeko Idazkaritza astean behin bilduko da normalean, Herrialdeko arduradun politikoak deituta.

24. ARTIKULUA. HERRIALDEKO MAHAI POLITIKOA

1. Nafarroa Garaian, baldin eta Herrialdeko Batzarrak kontrakoa erabakitzen ez badu, bigarren zuzendaritza ganbera bat egongo da, Herrialdeko Mahai Politikoa, alegia. Hegoaldeko Mahai Politikoaren antzeko ezaugarriak izango ditu, eta bere osaera, eskumenak eta bileren maiztasuna Herrialdeko Batzarrak berak egokitzen jotzen dituenak izango dira zehazki.

2. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, printzipioz, Herrialdeko Idazkaritza izango da zuzendaritza-
-organo bakarra, baina, dagokion herrialdeko Batzarrak hala erabakitzen badu, Herrialdeko
Mahai Politikoa eratu ahal izango dute, Nafarroa Garaiko baldintza berdinetan.

25. ARTIKULUA. TOKIKO BATZARRA

1. Tokiko Batzarra tokiko erabaki-organo goren da. Tokiko Idazkaritzak (eta hala badagokio,
Mahai Politikoa) eta Udal Taldeak haren agindua bete beharko dute, eta hari kontuak eman
beharko dizkiote.
2. Lurralde-eremu horretako bilkide guztiek osatzen dute.
3. Honako funtzio hauek ditu:
 - Ildo politiko orokorra toki-mailara eramatea.
 - Lurralde-eremu horri baino ez dagozkion gaien inguruko gogoeta egitea eta erabakiak har-
tzea, antolakuntza-alderdiak barnean hartuta, hala nola beharrezkotzat hartzen dituen lan-
taldeak osatzea (Udal Taldea, Udalgintza Taldea, Komunikazio eta Propaganda Taldea eta
abar) eta Tokiko Idazkaritzaren eta, hala badagokio, Mahai Politikoaaren osaera, hautatzeko
prozedura eta hautaketa bera.
 - Beharrezkoak diren antolakuntza-doikuntzak egitea eta Tokiko Idazkaritzan eta, hala bada-
gokio, Mahai Politikoa hutsik geratu diren tokiak berritzea. Halaber, Tokiko Idazkaritzako
eta, hala badagokio, Mahai Politikoko kideen aurka aurkeztutako errebokatze-eskaerak eba-
tziko ditu.
 - Udal hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzea, 13. artikuluan eta hura garatuko duen
erregelamenduan ezarritako irizpideei jarraikiz.
4. Tokiko Batzar bakoitzak ordezkaritza izango du (ordezkaritza bidezko modalitatean) Batzar
Nagusian zein dagokion Herrialdeko Batzarrean. Tokiko Batzar bakoitzari ondorengo ordezkari
kopurua aukeratzea dagokio:
 - 25 bilkide baino gutxiagoko batzarretan: ordezkari 1.
 - 25-50 bilkide arteko batzarretan: 2 ordezkari.
 - 50 bilkide baino gehiagoko batzarretan: 3 ordezkari.

Ordezkarietako bat tokiko arduradun politikoa izango da nahitaez, eta bestea (edo besteak), be-
rriz, Tokiko Batzarreko kideen artean hautatuko d(ir)a. Halaber, ordezkariak hautatuko dira.

Tokiko Batzarrak ordezkariak eta haien ordezkariak hautatuko ditu Biltzar bakoitzaren ostean,
ohiko zein ohiz kanpokoak izan, eta hautaketa hori berritu beharko du dagokion tokiko bilkideen
kopuru-aldaketak ordezkari kopuruaren aldaketa bat dakarren bakoitzean.

Tokiko ordezkariak berberak izango dira Batzar Nagusian zein Herrialdeko Batzarrean.

5. Tokiko Batzarrak ez du aldizkakotasun finkorik izango, baina urtean bi aldiz bildu beharko du gutxienez, tokiko arduradun politikoak deituta. Gutxieneke bi bilera horiek urte politikoaren hasieran eta bukaeran deituko dira, eta Plan Politikoa eta planifikazio lokala egiteko eta bien balantzea egiteko baliatuko dira.

26. ARTIKULUA. TOKIKO IDAZKARITZA

1. Tokiko Idazkaritza toki-mailako zuzendaritza politikoko organoa da.
2. Honako eginkizun hauek ditu:
 - Tokiko Batzarra dinamizatzea.
 - Tokiko plan estrategikoa egitea eta horren jarraipena egitea.
 - Tokiko ildo politikoa planifikatu eta dinamizatzea, ildo politiko orokorra eremu lokalera eramanez eta lan ildo propioekin osatuz.
 - Udal Taldea eta osatu diren lantalde guztiak gainbegiratu, dinamizatu, koordinatu eta informatzea.
3. Honako arduradun hauek eratuko dute gutxienez:
 - Tokiko arduradun politikoa, Tokiko Batzarrak hautatuko duena.
 - Udal Taldeko arduraduna, Udal Taldeak berak hautatuko duena.

Tokiko Idazkaritza osatuko da, lehentasunez, tokiko Antolaketa eta Komunikazio arduradunekin, baita eratzen diren lantaldeetako (Udalgintza Taldea, esaterako) arduradunekin ere.
4. Tokiko Idazkaritza berak erabakitzen duen aldizkakotasunarekin bilduko da, tokiko arduradun politikoak deituta.

27. ARTIKULUA. TOKIKO MAHAI POLITIKOA

Tokiko Idazkaritza izango da, defektuz, tokiko zuzendaritza-esparru bakarra, baina leku jakin batzuetan (hiriguneak, herri handiak...), betiere horretarako beharra eta baldintzak betetzen badira, Tokiko Batzarrak bigarren zuzendaritza-ganbera bat eratzea erabaki ahal izango du, Tokiko Mahai Politikoa, alegia. Mahai honek Tokiko Batzarrak berak egoki iritzitako osaera, eskumenak eta bilera-maiztasuna izango lituzke.

28. ARTIKULUA. KONTROL ETA BERME BATZORDEA

1. Kontrol eta Berme Batzordea EH Bilduren funtzionamendu demokratiko eta gardena zaintzeaz eta bilkideen eskubideak defendatu eta bermatzeaz arduratzen den organoa da. Halaber, bilkideek eta organoek EH Bilduren Estatutuak betetzeaz arduratzen da.
2. Kontrol eta Berme Batzordeak bere funtzioak betetzeko askatasuna, agintea eta independentzia dauka, eta ebazpenak, irizpenak, txostenak eta gomendioak ematen ditu, behar bezala arrazoituak.

3. Biltzarrak hautatutako bost kidek osatuko dute, eta, horietatik, bi gutxienez emakumeak izango dira. Kideen artean, presidentea eta idazkaria hautatuko dute.
4. Kontrol eta Berme Batzordeko kide izaera bateraezina da EH Bilduko beste edozein kargu organiko edo publiko betetzearekin.
5. Kontrol eta Berme Batzordearen funtzioak honako hauek dira:
 - a. Txostenak egitea eta irizpenak edota gomendioak ematea Estatutuen interpretazioari buruz edota Erregelamenduen eta barne arauen egokitasunari buruz.
 - b. Bilkideek edo gobernu-organoek Estatutuen interpretazioari buruz edota Erregelamenduen eta barne arauen egokitasunari buruz egindako kontsultak ebaztea.
 - c. Haien eskubide estatutarioak urratu zaizkiela uste duten bilkideen edo gobernu-organoen babes eskaerak ebaztea.
 - d. Diziplina-espedienteen ebazpenen aurka jarritako babes-helegiteak ebaztea.
 - e. Estatutuen edo Legearen aurkakoak direlakoan, Federazioaren organoek hartutako akordioen kontra aurkez litezkeen inpugnazioak ebaztea.
 - f. Planteatutako auzien berri ematea Batzar Nagusiari urtean behin, eta memoria osatzea Biltzarrari begira.
6. Kontrol eta Berme Batzordeak bere Erregelamenduari jarraikiz jardungo du, eta Erregelamendu hori Batzar Nagusiak onartuko du.

29. ARTIKULUA. BILKIDEEN ERREKLAMAZIO-PROZEDURA

8.d artikuluan sar daitekeen Alderdien Federazioko organoen erabaki bat inpugnatuz gero, honako prozedura honi jarraituko zaio:

1. Alderdien federazioko organoen erabakiak Kontrol eta Berme Batzordearen aurrean aurkaratu ahal izango dira hamar eguneko epean erabakia hartzen den egunaz geroztik, edo, hala badagokio, bilkide erreklamatzaileri jakinarazten bazaio, jakinarazpen-egunaz geroztik.
2. Federazioko organoek hartutako edozein erabaki irmo bihurtuko da, baldin eta epe horretan aurkaratzerik aurkezten ez bada.
3. Inpugnazioa Kontrol eta Berme Batzordearen aurrean formalizatuko da zuzenean, bilkide guztiek jakin beharko duten haren posta elektronikoaren bitartez.
4. Inpugnazioaren tramitazioaren barruan aurkakotasuneko prozesu bat hartuko da, non aldeek, bakoitzak eta hurrenez hurren, alegazioak aurkezteko aukera izango duten hamar eguneko epean.
5. Frogak hamar eguneko epe komun baten barruan proposatu eta gauzatuko dira. Behin frogaldia amaiturik, bi alderdiek beren ondorioak azaldu beharko dituzte, eta, azkenean, dagokion ebazpena emango da.

6. Kontrol eta Berme Batzordeak bi hilabeteko epean ebatziko du gehienez, beren kideen gehiengo absolutuz, eta ebazpena nahitaez bete beharko da.
7. Bide judizialera jotzeko, barne-bidea agortu beharko da aldez aurretik.

30. ARTIKULUA. HAUTUTAKO AGINTARIEN KONTROL DEMOKRATIKOA

1. Barne-karguetarako zein kargu publikoetarako hautatutako agintari guztiek kontuak eman beharko dituzte aldian behin beren zereginaren inguruan, sei hilean behin beren agenda, bilera publikoak, ekintzak eta erabakiak argitaratuz.
2. Erabateko gardentasunez jokatu dute baliabideak erabiltzean, alderdien federazioarenak edo publikoak izan, eta beren jarduerari dagokionez egokitzen jotzen diren informazio-eskaera guztiei erantzun beharko diete.
3. Agintaria hautatu duen Batzarrak berak egingo du kontrol demokratikoa, edo ekintza politikoa kontrolatzen duen barne-organoak edo Batzarrak, kargu publikoen kasuan. Horretarako, urteko ohiko bilkuran, gai zerrendan txertatutako da, nahitaez, hautatutako agintarien kontu-ematea eta haien kudeaketaren bozketa. Hamabost egun lehenago, agintari horiek txosten bat bidali beharko diete dagokion organoko edo, hala badagokio, Batzarreko kide guztiei, beren kudeaketaren berri emanez eta Estatutu hauetan, garapeneko Erregelamenduetan eta Kode etikoan bildutako erantzukizunak eta betebeharrak zenbateraino bete dituzten jakitera emanez.

31. ARTIKULUA. ARAUDIA BETETZEKO KONPROMISOA

1. Euskal Herria Bildu alderdi politikoen federazioak arlo guztietan indarrean dagoen legedia betetzeko konpromisoa hartzen du. Konpromiso hori hedatzen da garatzen dituen jarduera guztietara eta bere maila eta antolaketa-egitura guztietara, Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 9 bis artikuluari jarraiki. Bereziki, EH Bilduk honako printzipio hauek sustatzen ditu:
 - Barne-araudia betetzea. EH Bilduk eta EH Bildu osatzen duten pertsona guztiek alderdiaren barne funtzionamendua erregulatzen duten estatutuak, erregelamenduak eta edozein araudi errespetatzeko eta betetzeko konpromisoa dute.
 - Kanpoko araudia betetzea. EH Bilduk konpromisoa hartzen du nazio, estatu eta nazioarte mailan jarduera politikoa erregulatzen duten legeak eta arauak errespetatzeko. Konpromiso horren barruan sartzen da hauteskunde, zerga eta lan arloetako legeria betetzea, bai eta politika- eta administrazio-jarduerak gauzatzearekin zerikusia duen edozein arau garrantzitsu betetzea ere.
 - Betetze penalarikiko konpromisoa. Federazioak eta bere kideek konpromisoa hartzen dute beren eskubide eta obligazio politikoak egikaritzean erantzukizun penala izan dezaketen jokabideak ez izateko.
 - Gardentasuna eta kontuak ematea. Araudiarekin duen konpromisoarekin bat, EH Bilduk gardentasun handiena bermatuko du bere ekintza guztietan, eta organo eskudunei, afilia-

tuei eta, oro har, gizarteari kontuak emateko konpromisoa hartzen du. Gainera, alderdiaren baliabideen eta funtsen auditoretza eta barne-kontrola sustatuko ditu, erabilera egokia ziurtatzeko eta legez kanpoko jardunbideak saihesteko.

- Zehapenak eta diziplinazko neurriak. Artikulu honen xedapenak eta aplikatu beharreko araudia ez betetzeak dagozkion diziplinazko neurriak hartzea ekarriko du, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
2. Hegoaldeko Idazkaritza arduratuko da legez kanpoko jokabideak prebenitzeko, antzemateko eta horiei aurre egiteko zaintza- eta kontrol-sistemen aplikazioa bermatzeaz, eta, horrela, kultura etikoa sustatuko du Federazioaren barruan, Zigor Kodearen 31 bis artikuluan xedatutakoa bezela, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak sartutako aldaketaren arabera. Behar izanez gero, Arauak Betetzeko Bulego bat sortu ahal izango du, barneko nahiz kanpoko araudia errespetatzen dela zaintzeko, eta beharrezko tresnak emango dizkio horretarako.

32. ARTIKULUA. KONTU BATZORDEA

1. Kontu Batzordea barne-organo fiskalizatzailea da, eta kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena, EH Bilduren baliabide ekonomikoen eta ondare-baliabideen erabilera egokia eta gobernu-organoek egiten dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-legezkotasuna bermatzen ditu.
2. Urtean behin, Hegoaldeko Mahai Politikoak, Kontu Batzordearen oniritziarekin, aurreko ekitaldiko ekonomia eta finantza-txostenak eta kontu-txostenak aurkeztuko ditu Batzar Nagusian, onar daitezen.
3. Kontu Batzordea Biltzarrak hautatutako hiru pertsonaz osatuta egongo da lau urteko aldi baterako, eta organo horren aurrean baino ez du erantzungo. Hala ere, txostenak egin beharko ditu Batzar Nagusiak eskatuz gero.

IV. Kapitulu

Bestelako antolakuntza esparruak eta baliabideak

33. ARTIKULUA. ERREFERENDUMA/KONTSULTA

1. EH Bilduk erreferendumak egiteko prozedura artikulatu ahal izango du erabaki garrantzitsuak hartzeko, Hegoaldeko Mahai Politikoak erabakita edo gutxienez bilkideen %10ek eskatuta. Nolanahi ere, bilkide horietatik, herrialde berekoak %40 izango dira gehienez.
2. Era berean, herrialdeko erreferendumak egin ahal izango dira lurralde-eremu hori bakarrik eragintzen duten gaiak erabakitzeko, Hegoaldeko Mahai Politikoak erabakita edo gutxienez herrialdeko bilkideen % 25ek eskatuta.
3. Erreferendumak gehiago soiluz onartuko dira, betiere parte-hartzea %40tik gorakoa baldin bada, kontuan hartuta bilkideak eta, hala badagokio, 5. artikuluan aipatu horretarako espresuki inskribatutako hurbileko pertsonak eta jarraitzaileak, betiere dagokion lurralde-eremukoak.

34. ARTIKULUA. KONFERENTZIA POLITIKOA

1. Ekitaldi politiko-kulturala, bilkideentzat eta 5. artikuluan aipatutako hurbileko pertsonentzat edo jarraitzaileentzat irekia.
2. Konferentzia Politikoa urtero bilduko da eta, Batzar Nagusiaz gain, 17. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dena, mota guztietako jarduera politiko-kulturalak barne hartu ahal izango ditu: hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, erakusketak, herri-bazkariak, kontzertuak... Militantziaren urteko hitzordu nagusia izango da, bai eta tresna garrantzitsu bat ere subiranismoaren eta ezkerreko independentismoaren komunitatea artikulatzeko.
3. Normalean, urte politikoaren hasieran egingo da, salbu eta Hegoaldeko Idazkaritzak beste data bat erabakitzen badu.

35. ARTIKULUA. KONFERENTZIA MUNIZIPALISTA

EH Bilduren mugimendu municipalistaren topagunea da, urtero bilduko dena. Esperientzien trukea erraztea eta udal politikak eta proiektu municipalista lantzeko prozesuan modu kolektiboan laguntzea du helburu.

36. ARTIKULUA. IDAZKARIEN BATZORDEA

Esparru honek bost erantzukizun nagusiak biltzen ditu, hau da, idazkari nagusia, Antolaketa idazkaria, Ekintza Politikoko idazkaria, Programa idazkaria eta Harremanen idazkaria. Koordinazio lanak bakarrik egingo ditu, hots, ez du erabakitze eskumenik izango; egoki iritzitako guztietan bilduko da, kideetako edozeinek eskatuta, eta, Hegoaldeko Idazkaritzak eta Mahai Politikoak bezala, jorratzen ari den gaiak lantzeko egokitzen jotzen dituen arduradunak sartu ahal izango ditu unean-unean.

37. ARTIKULUA. IDAZKARITZA SEKTORIALAK

1. Idazkaritza sektorialak kolaboratzaileen sareak dira, horietako bakoitza koordinatzen duen idazkari sektorialaren inguruan antolatuak.
2. Idazkaritza sektorialen eginkizunak honako hauek dira:
 - Idazkaritza sektorial bakoitzaren lan-eremuaren ikuspegi orokorra izatea (lan-eremu horren bilakaeraren ikuspegi orokorra, baita EH Bilduk eremu horretan garatutako ekimen politiko-instituzionalarena ere).
 - EH Bilduren erreferentziazko pertsona izatea lan-esparru horretan, hau da, harekin lotutako solaskidetza- eta bozeramailetza-lanak egitea.
 - Lan-eremu horretako ekimen politiko-instituzionalari dagokionez, EH Bilduk egin behar dituen jauzi programatikoak identifikatzea.
 - Jauzi programatiko horien lanketan parte hartzea.
3. Batzar Nagusiak, Hegoaldeko Mahai Politikoak proposatuta, egokitzen jotzen dituen idazkaritza sektorial guztiak sortu ahal izango ditu, bai eta horien berrantolaketari ekin ere.
4. Eraldaketa-bektore nagusietako bat den heinean, Feminismoen Idazkaritza bat egongo da beti, zeharkakoa. Gainerako idazkaritza sektorialak, Programa Idazkaritza eta, oro har, erakunde osoa balio eta praxi feministaz bustitzea izango da Idazkaritza horren eginkizuna, eta horren ardurduna (Feminismoen idazkaria) Hegoaldeko Mahai Politikoko kide izango da.
5. Era berean, belaunaldi berriak ezkerreko proiektu subiranista eta independentistarekin lotzea estrategikoa dela kontuan hartuta, Gazteria Idazkaritza bat egongo da beti, eta horren ardurduna (Gazteria idazkaria) Hegoaldeko Mahai Politikoko kide izango da.

38. ARTIKULUA. ESTRATEGIA BATZORDEA

Hegoaldeko Idazkaritzak izendatutako lantaldea da, idazkari nagusiaren inguruan eratua. Azken honek bere gain hartuko du koiuntura-analisiak eta hausnarketa eta ekimen estrategikoak lantzeko eta Hegoaldeko Idazkaritzaren eta Mahai Politikoaren esku jartzeko ardura.

39. ARTIKULUA. EKINTZA POLITIKO, SOZIAL ETA INSTITUZIONALEKO BATZORDEA

Hegoaldeko Idazkaritzak izendatutako lantaldea, Ekintza Politikoko idazkariaren inguruan eratua, eta azken horrek bere gain hartuko du ekintza politiko, sozial, eta instituzionaleko proposamenak lantzeko eta Hegoaldeko Idazkaritzaren eta Mahai Politikoaren eskura jartzeko ardura.

40. ARTIKULUA. HAUTESKUNDE-ZIKLOAREN ARDURADUNA

Hegoaldeko Idazkaritzak hautatuko du, eta, bere lantaldearekin batera, hauteskunde-deialdiak prestatzearekin zerikusia duen lan guztia sistematizatuko dute; analisi demoskopikoak, hautagai izan daitezkeen onarpen-maila neurtzea, kanpainak prestatzea, etab.

41. ARTIKULUA. PRESTAKUNTZA ARDURADUNA

Hegoaldeko Idazkaritzak hautatuko du, eta EH Bildu kide guztien –kargudun publiko guztiak barne, noski– prestakuntza definitzeaz eta dinamizatzeaz arduratuko da.

42. ARTIKULUA. PLAN FEMINISTAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO PROTOKOLOAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Hegoaldeko Idazkaritzak izendatutako lantaldea, Antolaketa idazkariaren mendekoa, eta Plan Feministaren (EH Bilduren trantsizio feministarako plan estrategiko eta integrala) eta Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloaren inplementazioaz eta jarraipenaz arduratuko dena, EH Bilduko gainerako arloekiko lankidetzaz eta koordinazio estuan.

43. ARTIKULUA. EMAKUMEENTZAKO GUNEA

Emakumezko bilkideen topaketa, hausnarketa, eztabaida eta parte-hartzerako gunea, emakumeen ahalduntzea sustatzeko premisa feministetatik abiatuta.

44. ARTIKULUA. GAZTEENTZAKO GUNEA

Bilkide gazteen topaketa, hausnarketa, eztabaida eta parte-hartzerako gunea, haien ahalduntzea sustatzeko sortua.

45. ARTIKULUA. ESKUALDEKO TOKIKO ARDURADUN POLITIKOAK ELKARTZEKO GUNEA ETA ESKUALDEKO BATZARRAK

1. Gune honek ildo politikoaren koordinazioa eta transmisioa ditu helburu.
2. Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoak Elkartzeko Gunean dagokion eskualdeko tokiko arduradun politikoak batzartuko dira. Hilean behin bilduko da, dagokion eskualdeko Eraketa arduradunak deituta eta dinamizatuta.

3. Eskualdeko Batzarretan eskualde bakoitzako militanteak bilduko dira beharrezkotzat jotzen den bakoitzean. Dagokion eskualdeko Eraketa arduradunak deitu eta dinamizatuko ditu

46. ARTIKULUA. TALDE MUNIZIPALISTA

1. Tokiko lantaldea, zinegotziez eta tokiko jendarte-dinamika eta herri-mugimendu guztietan murgildutako bilkideez osatua, eta tokiko proiektu munizipalista dinamizatu eta inplementatzeko arduraduna. Toki Programa dinamizatzeaz ere arduratuko da, parte-hartzean oinarritutako prozesuen eta entzute aktiboko ariketa espezifikoaren bitartez, eta Toki Batzarrari helaraziko dizkio bai programa hori, bai haren garapen eta inplementazioarekin lotutako proposamen guztiak, onar ditzan.

47. ARTIKULUA. HEGOALDEKO UDAL TALDEEN KOORDINADORA

1. Udal talde instituzionalen funtzionamenduari prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eskaintzeaz arduratuko da.
2. Erregelamendu bidez garatuko da.

48. ARTIKULUA. PLATAFORMA TELEMATIKOA

EH Bilduk plataforma telematiko indartsu bat garatuko du, besteak beste, honako aukera hauek eskainiko dituen:

- Erreferenduma bide telematikoaz egiteko aukera.
- Biltzar eta Batzar Nagusien eskura luzapen telematiko bat jartzeko aukera, eztabaidei eta erabakiak hartzeari dagokienez.
- Noranzko anitzeko komunikazioa, bilkideen artean edo EH Bilduko antolaketa-aparatuen artean.
- EH Bilduren jakintza esplizitua eta inplizitua kudeatzea.

V. Kapitula

Ekonomia- eta Ondare-Araubidea

49. ARTIKULUA. ARDURADUN EKONOMIKO-FINANTZARIOA

EH Bilduko ekonomia- eta finantza-arduraduna Hegoaldeko Idazkaritzak izendatuko du, eta honako funtzio hauek izango ditu:

- a. Urteko kontuak lantzea eta Kontuen Auzitegian aurkeztea.
- b. Herrialdeko ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduradunak ikuskatzea, baldin badaude.
- c. Estatutuetan edota haiek garatzen dituzten Erregelamenduetan adierazitako ordainketa-aginduen eta gastu-baimenen arloko funtzioak.
- d. Estatutuek edo zuzendaritza-organo gorenak esleitutako beste edozein funtzio.

50. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

EH Bilduk bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak eskuratu, administratu eta besterendu ahal izango ditu.

EH Bilduren baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

1. Finantzaketa pribatuaren bidez lortutakoak:
 - Bilkideen eta hurbileko pertsonen edo jarraitzaileen kuotak eta ekarpenak, konfiantzazko edo izendapen askeko hautetsien ekarpenak barne.
 - Federazioaren jardura propioen produktuak, ondare propioaren kudeaketaren ondoriozko errendimenduak, sustapen-jardueren ondoriozko etekinak eta helburu espezifikoetarako ematen dituen zerbitzuetatik lor daitezkeenak.
 - Dirutan edo jenerotan jasotzen dituen dohaintzak, 8/2007 Legean aurreikusitako moduan eta baldintzetan.
 - Hitzartzen dituen mailegu edo kredituetatik lortutako funtsak.
 - Jasotzen dituen jaraunspenak edo legatuak.
2. Finantzaketa publikoaren bidez lortutakoak:
 - Alderdi politikoen finantzetari dagokionez une bakoitzean indarrean dagoen Europako, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo tokiko legerian xedatutakoari jarraikiz jasotzen dituen diru-sarrerak.

51. ARTIKULUA. SORTZE-ONDAREA

Eratu zenean, EH Bilduk ez zuen sortze-ondarerik.

52. ARTIKULUA. KONTU-EMATEKO PROZEDURA. ADMINISTRAZIOA, FISKALIZAZIOA ETA KONTROLA

Ekonomia- eta ondare-araubidearen administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola honako arau hauei jarraikiz egingo da:

1. Hegoaldeko Idazkaritzak EH Bilduren kontu-proposamena landuko du urtean behin, eta Batzar Nagusiak onartu beharko du.
2. Aurrekontuak urtebeteko indarraldia izango du, eta abenduaren 31n itxiko da ekitaldi bakoi-tzean.
3. EH Bilduren ekonomia- eta finantza-kudeaketa ekonomia- eta finantza-arduradunaren lana izango da. Arduradun horrek kontuak eman beharko ditu sei hilean behin Hegoaldeko Idazkaritzan, eta Kontu Batzordearen aginduzko txostena aurkeztu beharko du.
4. Eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak sorrarazten dituzten egintza eta dokumentu guztiak ikuskatzeko funtzioa Kontu Batzordeari dagokio.
5. Kontuak Kontuen Auzitegiari igorri beharko zaizkio urtean behin, lege ezarritako epearen barruan.

53. ARTIKULUA. DOKUMENTU-ARAU BIDEA

EH Bilduk, Bilkideen Liburua ez ezik, akta-liburuak, kontabilitate-liburuak, diruzaintza-liburuak eta inbentario eta balantzeen liburuak ere eramango ditu. Liburu horien edukia arauz finkatuko da, eta finantza- eta ondare-egoera eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako betebeharren betetzea ezagutzeko aukera emango du.

VI. Kapitula

Federazioa desegitea

54. ARTIKULUA. DESEGITEA

1. EH Bildu desegiteko, Alderdien Mahaiaren erabakia zein Biltzarrarena beharko da.
2. Biltzarrari dagokionez, hiru laurdenek espresuki hartutako erabakia beharko da, eta deialdia helburu bakar horrekin egingo da.
3. Desegitea aztertzeko Biltzarrerako deialdia idazkari nagusiak egingo du, norberaren ekimenez edo Hegoaldeko Mahai Politikoko kideen hiru laurdenek hartutako erabakiz. Halaber, bilkideen % 50ek eskatzen dutenean egin beharko da EH Bildu desegiteko Biltzarrerako deialdia.
4. Desegiteari buruzko erabakiak Likidazio Batzorde bat eratzea ekarriko du, eta batzorde hori arduratuko da EH Bilduren ondare-likidazioko prozesua kudeatzeaz. Desegitearen unean, zeuden finantza-betebeharrak bete ondoren geratzen den ondarea alderdien artean eta Euskal Herriko erai-kuntza nazionalaren eta jendarte-eraldaketaren alde diharduten erakundeen artean banatuko du Likidazio Batzordeak, Alderdien Mahaian erabakitako partaidetza ekonomikoko ehunekoen arabera.

Xedapen gehigarriak

LEHENENGOA

1. Funtsezkoak ez diren aldaketak sartu ahalko dira estatutu hauetan. Horri dagokionez, honako hauek hartuko dira halakotzat:
 - a. Akats materialen, ortografikoen edo komunztadurazkoen zuzenketak.
 - b. Idazkuntzako egokitzapen teknikoak edo argitzeko azalpenak estatutu hauen edukiaren interpretazio egokiago bat errazteko, betiere egokitzapen horiek ez badute arauaren eduki normatiboa eta espiritua aldatzen. Anbiguateak saihestea, xedapenen ulerkuntza hobetzea eta xedapen horien behar bezalako interpretazioa ziurtatzea izango da zehaztapen horien helburua.
 - c. Ezinbesteko lege-eskakizunak betetzearen edo hauteskunde-administrazioaren edo Alderdi Politikoen Erregistroaren eskakizun formalen ondoriozko egokitzapenak.
2. Aldaketa horiek zuzenean onartu ahalko ditu Hegoaldeko Idazkaritzak Kontrol eta Berme Batzordearen aldeko irizpenaren ondoren, eta batzorde horrek arrazoitu egin beharko du betiere aldaketa ez-funtsezkoa dela.
3. Xedapen honi jarraikiz onartutako aldaketak egingo den hurrengo Batzar Nagusian jakinaraziko zaizkie bilkideei.

BIGARRENA

EH Bilduko bilkide guztiei zuzenean aplikatuko zaie estatutu hauetan aurreikusitako diziiplina-araubidea.

Araubide horrek ordezkari aplikazioa izango du, halaber, bateragarria den bezain laster, eta betiere honako hauei aplikatu ahalko zaizkien arau espezifikoak alde batera utzi gabe:

- Langileei, langile liberatuak edo edozein forma juridikorekin kontratatutakoak barne.
- EH Bilduren izenean jarduten duten kargu publikoei edo kargu organikoiei.

Kasu horietan, bilkideen estatutu-betebeharrak eta estatutu hauetan tipifikatutako arau-hausteak interpretazio-erreferentzia garrantzitsutzat eta aplikagarriak diren arau-tresnekiko osagarritzat hartuko dira, hala nola EH Bilduren Kode etikoa eta barne-funtzionamenduko erregelamendua, eta langile lan-kontratudunen kasu konkretuan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa.

Diziiplina-araubidea modu koherentean interpretatu eta aplikatu beharko da ekintza politikoaren, etika militantearen, funtsezko eskubideen errespetuaren eta EH Bilduren proiektu politikoaren zaintzaren printzipioekiko.

HIRUGARRENA

EH Bilduko eta Federazioa osatzen duen edozein alderditako filiazio bikoitza izanez gero, alderdi horrek indarkeria matxistaren aurka aplikatzen dituen protokoloak lotesleak izango dira Federazioarentzat.

EH Bilduk ez dio protokolo berri bati hasiera emango eta ez du, halaber, egitate berengatik jarduketarik bikoiztuko, eta bere gain hartuko ditu dagokion alderdiak izapidetutako prozeduraren barruan izandako emaitzak eta hartutako neurriak.

Protokoloaren ondorioak pertsonaren eskubide eta betebeharrak bilkide gisa eraginpean hartzen dituztenean, kasua Kontrol eta Berme Batzordeari jakinaraziko zaio, xedapen hori estatutuen eta EH Bilduren barne-babeseko esparruaren barruan behar bezala aplikatzen dela bermatzeko.

Azken xedapenak

LEHENENGOA

Estatutu hauek Biltzarrak onartzen dituenetik aurrera jarriko dira indarrean.

BIGARRENA

Estatutu hauek garatuko dituzten Erregelamenduak honako hauek dira, gutxienez (Hegoaldeko Mahai Politikoak Batzar Nagusiari aurkeztuko dizkio, hark onar ditzan):

- Diziplina eta berme kodea.
- Kontrol eta Berme Batzordearen Erregelamendua.
- Kontu Batzordearen Erregelamendua.
- Hauteskunde-hautagaitzak prestatzeko Erregelamendua.
- Hegoaldeko Udal Taldeen Koordinadoraren Erregelamendua.
- Kode Etikoa.

Estatutu hauek EH Bilduren III. Biltzarrean onartu dira, Baluarte Nafarroako Batzar Jauregi eta Auditoriumean, 2025eko otsailaren 8an.

Aldaketen historia

DATA	BERTSIOA	NORK SORTUA	ALDAKETAREN AZALPENA
2025/02/08	1.0	Biltzarrak	Oinarrizko dokumentuaren eraketa
2025/09/20	2.0	Batzar nagusiak (Konferentzia politikoa)	Ministerioak eskatutako akatsen zuzenketa; Aldaketa substantiboak eta ez-substantiboak bereizten dira

ehbildu